

**KANPO HARREMANETARAKO IDAZKARITZA NAGUSIAK  
EUSKO LEGEBILTZARRARI AURKEZTUTAKO TXOSTENA,  
EUSKAL ERAKUNDEEK EUOPAR BATASUNEAN EGINDAKO  
JARDUKETEI BURUZ**

**2015eko urria**

# **AURKIBIDEA**

## **I. ZERGATIK TXOSTEN HAU**

## **II. EUROPAR BATASUNAREN GAUR EGUNGO TESTUINGURUA**

## **III. EUSKAL ERAKUNDEEK 2014AN ZEHAR EUROPAR BATASUNEAN EGINDAKO JARDUKETAK**

### **III.1. Eskualdeetako Komitea eta Euskadiren parte-hartzea**

### **III.2. Europar Batasuneko Kontseiluan eta Europako Batzordeko komiteetan izandako parte-hartzea**

### **III.3. Gobernu-ekintzaren ondorioz EBn egindako jarduketak:**

- 1. Bisita instituzionalak**
- 2. Euskadiren hainbat alderdi European proiektatzea eta Erkidegoko aktualitateko gaietan posizionatzea**
- 3. Beste bisita eta elkarretaratze batzuk**
- 4. Konferentzia eta debateetan izandako parte-hartzea. Ekitaldiak eta informazio-bilerak antolatzea eta bertara joatea**
- 5. EBren inguruko sare, organizazio eta foroetan egindako lana**
- 6. Europako Erkidegoko zuzenbideari buruzko espedienteak jakinaraztea eta komunikatzea**
- 7. Erkidegoko gaien komunikazioa eta zabalkundea**

## **IV. MUGAZ GAINDIKO LANKIDETZAREN ARLOAN EGINDAKO JARDUERAK**

## **V. ETORKIZUNERAKO PROPOSAMENAK**

### **A. Transbertsalki jarduteko proposamenak**

### **B. Sektorialki jarduteko proposamenak**

## I. ZERGATIK TXOSTEN HAU

2013ko azaroan, Euskal Talde Popularrak legez besteko hasierako proposamen bat aurkeztu zuen, Jaurlaritzak Euskadi eta Europari buruz komunikazio bat prestatzea eta osoko bilkura monografiko bat egitea proposatzeko.

Azkenik, Eusko Abertzaleak, Euskal Sozialistak eta Euskal Talde Popularra taldeek erdibideko zuzenketa bat itundu zuten aipatutako legez besteko proposamen hori aldatzeko. Honela dio itunak:

*Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio prestatu eta bidali dezala Ganberara, hurrengo bilkura-aldian zehar, osoko bilkuran edo batzordean eztabaidatzeko, komunikazio bat euskal erakundeek Europar Batasunaren aurrean izandako jarduketari buruz, non jasoko baitira egoeraren azterketa bat eta jarduketa-proposamen batzuk, aipamen berezia eginez 2013an izandako jarduketari, integrazio europarreko prozesua gauzatzearen eta aitzinatzearen markoan.*

*Era berean, Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezen, 2014tik aurrera, bidali dezala Ganberara, urte bakoitzaren hasieran, osoko bilkuran edo batzordean eztabaidatzeko, urteko komunikazio bat euskal erakundeek Europar Batasunaren aurrean izandako jardunari eta jarduketari buruz".*

2014ko irailean, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiak txosten bat aurkeztu zion Ganberari eta, bertan, euskal instituzioek 2013. urtean zehar Europar Batasunean egindako jarduera garrantzitsuenak jaso zituzten. Gainera, txostena agerraldi baten xede izan zen, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiak berak eskatuta.

Oraingo honetan, eta erdibideko zuzenketa horren eraginez, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiak txosten bat aurkeztu du eta, txosten horretan, euskal instituzioek 2014. urtean zehar Europar Batasunean egin dituzten jarduera esanguratsuenak jasotzen dira.

Horregatik aurkezten da orain txosten hau, gero, komeni bada, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiak tratatuko duena Eusko Legebiltzarraren Europako Gaien eta Kanpo Harremanen Batzordearen aurreko agerraldian.

Berritasun gisa, eta 2014an aurkeztutako txostenarekin alderatuta, oraingo honetan mugaz haraindiko lankidetzaren arloan egindako jarduera esanguratsuenak gaineratu dira, funtsezko ardatza baita Jaurlaritza une hauetan Europan egiten ari den jarduerari dagokionez.

Aurreko urtean aurkeztutako txostenean egin zen moduan, jarduketa zehatzei heldu aurretik, erreferentzia labur bat egingo diogu Europar Batasunak orain duen testuinguruari, argiago azaldu ahal izateko euskal instituzioek EBn egindako jarduketak eta etorkizunerako egiten diren proposamen batzuk.

## II. EUOPAR BATASUNAREN GAUR EGUNGO TESTUINGURUA

2014. urtean aldaketa instituzional garrantzitsuak izan dira Europar Batasunean. Europako Parlamentua eta Europako Batzordea (Atzerri eta Segurtasun Politikako Goi Ordezkarria barne) berritzeaz gain, Europako Kontseiluko Lehendakaritza ere berritu da.

Afrikatik eta Asiatik Europara datozen migrazio-korronteak larriagotu egin dira eta Batasunak kontuan hartzeko moduko tentsioak ditu Greziarekin; testuinguru horretan, susperraldi ekonomikoko prozesu motel baten aurrean gaude.

Europar Batasuneko legegintza-mandatu berria aldaketa-aldi batean abiarazi da, proposatutako agenda estrategikoari nahiz jarraitu nahi den gobernantza-metodoari dagokionez. Programa estrategikoa jarraian aipatzen diren hamar lehentasunetan laburbildu daiteke, Europako Batzordearen lehendakariaren arabera:

- Enplegurako, hazkunderako eta inbertsiorako sustapena
- Merkatu bakar eta digital konektatua
- Energiari dagokionez erresistentzia-gaitasun handiagoa izango duen eta etorkizunerako ikuspegia duen aldaketa klimatikorako politika gaineratuko duen Batasuna
- Barne-merkatu sakon eta bidezkoagoa, oinarri industrial sendotua duena
- Batasun ekonomiko eta monetario sakon eta bidezkoagoa
- Arrazoizko merkataritza askea eta orekatua lortzeko akordioa Estatu Batuekin
- Elkarrekiko konfiantzan oinarritutako justizia eta funtsezko eskubideak
- Migrazioari buruzko politika europar bateratua
- Europar Batasun sendoagoa, mundu osoko aktore gisa
- Aldaketa demokratikorako Batasuna

2015eko urtarrilaren 13an, Europako Batzordeak "Juncker Plana" deiturikoaren proposamena aurkeztu zuen, Inbertsio Estrategikoetarako Europako Funtsaren (IEEF) bitartez, Europar Batasunean inbertsioa sustatzeko. Europako Batzordearen kalkuluen arabera, Funts hori da, hurrengo hiru urteetan, Batasun osoan gutxienez 315.000 milioi euroko inbertsio publikoak eta pribatuak mugiaraztea ahalbidetuko duen mekanismo nagusia. Haren bitartez, arrisku-profil handiagoa duten proiektuak finantzatuko dira, gastu publikoaren inpaktua maximizatuz eta inbertsio pribatua askatuz. Funtsa Europako Inbertsio Bankuak kudeatuko du, eta Batzordeak bazkide estrategiko gisa jardungo du harekin lankidetzan. Honako hauek parte hartu ahal izango dute IEEF horretan: EBko estatu kideek; hirugarrenek, sustapenerako banku nazionalek eta erakunde publikoek, adibidez (estatu kideen jabetzakoak edo horien kontrolpean daudenak); eta Batasunaren kanpoko eta sektore pribatuko erakundeek, betiere Funtsaren gaur egungo zergadunen baimenarekin. 2015eko ekainaren 19ko Ekonomia eta Finantza Kontseiluan (ECOFIN), ministroei IEEF sortzeko hurrengo urratsak jakinarazi zitzaizkien. Bere aldetik, Europako Parlamentuak IEEF Funtsaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 24ko osoko bilkuran; hark aldeko 464 boto, aurkako 131 boto eta 19 abstentzio izan zituen. Bozketak amaiera ematen dio legegintza-izapide azkar bati. Kontseiluarekin izandako negoziazioan, eurodiputatuek finantziazioaren egitura aldatu eta eragiketen kontrol demokratikoa handitu zuten. Erregelamendua 2015eko uztailean argitaratu zen eta Funtsa udazken honetan bertan abiarazteko prest dago.

Kohesio Politika berri bat diseinatu da eta, haren bitartez, finantza-erreminta berritzaileen erabilera sustatzen da (diru-laguntzen ordez, maileguak eta bermeak, adibidez), hala, 2014-2020 aldirako Europako inbertsio-funtsen eta egitura-funtsen inpaktua areagotzeko. Programazio-aldi berrian erreminta horien erabilera bikoiztea (gutxienez) da helburua. Programa eragileak zehaztuta daude dagoeneko, eta inbertsioak bere fruituak ematen hasi behar du Europa 2020 Estrategian zehaztutako helburuak lortzeari dagokionez. Sei hileko europarrear eta gobernantza ekonomikoaren prozesuan oinarrituta dagoen Kohesio Politika berria inbertsio publikoaren iturri nagusia bihurtu da hainbat estatu kideetan.

Europako Batzordeak Egonkortasun eta Hazkunderako Itunaren indarrean diren arauak buruzko orientazio berriak aurkeztu ditu. Orientazio horiek hiru helburu nagusi dituzte:

- Egiturazko erreformak modu eraginkorrean aplikatzen direla sustatzea.
- Inbertsioa sustatzea, IEEF berriaren esparruan, hain zuzen.
- Estatu kide bakoitzean ziklo ekonomikoa hobeto kontuan izatea.

Orientazio horiei esker, estatu kideek IEEFra egindako ekarpenek tratu mesedegarria izango dute eta, beraz, ez dira kontuan izango Itunaren osagai prebentibo edo zuzentzaileen esparruko aurrekontu-doikuntza egiteko orduan. Baldin eta %3ko defizitaren erreferentzia-balioa gainditzen bada, ez da muturreko defizit-prozedurarik abian jarriko ez-betetze hori IEEF Funtsaren ekarpena dela eta gertatu bada, betiere gainezkatze hori txikia bada eta aldi bateko izaera izango duela aurreikusten bada. Zor-irizpidearen arau-haustea ebaluatzeko orduan ere ez dira aintzat hartuko IEEFra egindako ekarpenak. IEEFra beren ekarpena egin aurretik, BPGaren %3ko defizita gainditzen ez zuten estatuek bakarrik jasoko dute tratu mesedegarri hori.

Europako Batzordeak benetako Ekonomia eta Diru Batasun sendoa finkatu nahi du. Pixkanaka, politika ekonomikoaren koordinazioa, konbergentzia eta elkertasuna sendotzea ahalbidetuko duten mekanismo zehatzak lortu nahi ditu eta, era berean, merkatu bakarraren funtzionamendua hobetu nahi du, Euroguneko ekonomien doikuntza-gaitasuna handitzeko ezinbestekoak diren sektoreetan bereziki. Bi bloke horietan aurrerapen nabarmenak lortuz gero, Ekonomia eta Diru Batasunaren funtzionamendua hobea izango da epe motzera, betiere ekimen horiek babes politiko sendoa jasotzen badute.

Landa Garapena da Nekazaritza Politika Bateratu (NPB) berriaren bigarren oinarria; hura 2014. urtean jarri zen martxan. Haren bidez, estatu kideek funts europarrak kudea ditzakete estatuan nahiz eskualdean, 2014-2020 aldirako Landa Garapenerako Programaren (LGP) bitartez. 2014. urtean zehar 118 LGP aurkeztu ziren guztira, Euskal Autonomia Erkidegokoa barne. 2015eko otsailaren 13an, Europako Batzordeak Espainiako LGP onartu zuen, gainerako LGP guztiak onartu aurretiko baldintza gisa.

Nazioartean, EBk munduko merkataritzan eta ekonomian duen pisua txikiagotzen ari dela esan dezakegu eta, beraz, Batasunak merkatu-aukera gehiago eskaini behar dizkie bere enpresei, funtsezkoak diren herrialdeekin merkatu askeko akordioak eginez. Testuinguru horretan, Europako Batzordea Europar Batasunaren eta Estatu Batuen arteko Merkataritza eta Inbertsioen Akordio Transatlantikoa negoziatzen ari da.

*“Europar Batasunaren eta Estatu Batuen artean merkataritza eta inbertsioa areagotzea da helburua, potentziala errealitate eginez, baina enplegua sortzeko eta hazkunderako aukera ekonomiko berriak sortzeko dituen benetako merkatu transatlantiko bat ustiatu gabe, eta betiere merkatuaren sarbidea hobetuz eta erregelamenduen arteko bateragarritasuna handituz, eta munduko arauen arloan jarraibide zehatz batzuk finkatuz”.*

Helburu hori lortzeko, Akordioak hiru kategoriatan multzokatutako zenbait kapitulu izango ditu, eta honako helburu hauek izango dituzte:

- Enpresentzat merkatura sartzeko bideak erraztea.
- Izapideak eta kostuak murrizteko arauzko lankidetzak, betiere kalitatea murriztu gabe.
- Esplotatu, inportatu eta inbertitzea erraztuko duten arau berriak zehaztea.

Prozesu negoziatzaileari dagokionez, merkataritza-akordio guztietan hiru etapa nagusi daudela azpimarratu daiteke: mandatua, negoziazioa eta erabakia. Guri dagokigun Akordioa bigarren fasean dago, hau da, negoziazio-fasean.

1. Mandatu-fasean, EBko gobernuak negoziazioak egin ditzala eskatzen diote Batzordeari. Europako Batzordeak, EBko administrazio publikoa den heinean, merkataritza arloko akordioak negoziatzen ditu 28 estatu kideen izenean. Eta kasu honetan, Gobernuak beren ildoak ematen dizkiote Batzordeari, eta Akordioa 2013ko ekainean negoziatzen hasteko mandatua helarazten dute.
2. Negoziatio-etapan, negoziatzen duen bitartean, Batzordeak hainbat kontsulta burutzen ditu. Merkataritza arloko akordioen negoziatioa denbora behar duen prozesua da eta, batzuetan, baita urteak ere. Kasu honetan, akordioa lortzeko eperik ez izan arren, Estatu Batuek eta Europar Batasunak negoziatioak hainbat urtez ez luzatzeko nahia adierazi dute.

Europar Batasunaren eta Estatu Batuen arteko negoziatioaren aldi horretan –nahiko konplexua izaten ari da gardentasunaren ikuspegitik–, Cecilia Malmström Merkataritza-komisarioak nagusitutako EBko taldea Estatu Batuetako negoziatzaileekin elkartu da (10 aldiz) eta horiekin hainbat proposamen trukatu dira. Negoziatio-prozesuan zehar, Batzordeak zenbait kontsulta egin dizkio Europako Parlamentuari eta Kontseiluari, eta beste hainbat kontsulta eta bilera egin ditu alderdi interesdunekin eta herritarrekin.

3. Erabakiak hartzeko etapan, EBko gobernuak eta Europako Parlamentuko diputatuek dute hitza. Hala:
  - Europako Batzordeak Batasuneko Kontseiluari aurkeztuko dio Akordioa, eta hark gehiengo kalifikatu bidez onartu beharko du hura (herritarren % 65 ordezkatzeko duten estatuen % 55). Oniritzia jaso ostean, hura Europako Parlamentuan onartu eta, gero, estatu kideetako Parlamentuetan berretsiko da.
  - Bozketa proiektuaren osotasunarekiko egingo da eta, beraz, Estatuak ezin izango dute zuzenketarik egin.

Oraindik adosteko asko dago, baina Batzordeak ahalik eta gehien aurreratu nahi du 2015. urte honetan.

Prozesuan zehar, Batzordeak Akordioaren berri eman du eta hainbat eragile inplikatu ditu zenbat ekimenen bitartez, esate baterako Akordioari buruzko twitter kontu bat eta

web-orri bat sortuz, horien hedapenerako zenbait bilera antolatuz, edo Akordioari buruzko Aholku Batzorde bat sortuz.

Eremu teknologikoan, Europar Batasunak aurrera egiten jarraitzen du Merkatu Digital Bakarraren konfigurazioan. Hark hiru oinarri ditu: kontsumitzaileek eta enpresek Europa osoko ondasun eta zerbitzu digitaletara sarbide hobea izan dezatela, baldintza egokiak sortzea, eta sare digitalek eta zerbitzu berritzaileek aurrera egin ahal izateko baldintza-berdintasuna lortzea, hala, ekonomia digitalaren hazkunde-potentziala maximizatuz.

Estatu kideei dagokienez, azken hilabeteetan EB barneko tentsioak agerian utzi dituzten zenbait gertakari gertatu dira. 2014ko irailaren 18an, Eskoziako autodeterminazio-erreferenduma egin zen. Erreferendum hori Eskoziako Gobernuaren eta Erresuma Batuko Gobernuaren arteko akordio bidez deitu zen eta, haren bidez, Eskoziak herrialde independentea izan beharko lukeen edo ez planteatu zen. Partaidetza % 84,6 izan zen, oso zifra altua kontsulta Eskozian egin zela kontuan hartuta. Azkenik, independentziarekiko «Ez» erantzuna nagusitu zen boto guztien % 55,3rekin, sezesioaren aldekoak % 44,7 izan baitziren.

2015eko maiatzaren 7an Erresuma Batuan egindako hauteskundeetan gehiengo osoa lortu zuen David Cameron buru zen Alderdi Kontserbatzaileak. Irabaziz gero, 2017. urtea baino lehen herrialdeak Europar Batasunean jarraitzeko erreferenduma egingo zuela hitzeman zuen "torien" liderrak. Euro-eszeptizismo britainiarraren hazkundera eta nazionalismo eskoziarraren goraldia direla-eta, Europar Batasunak Erresuma Batuko lurralde-errealitate konplexuari aurre egin beharko dio laster. David Cameronek erronda bat egin zuen Europako herrialde batzuetatik eta, hala, Europar Batasuneko tratatu batzuetan aldaketa zehatzak egitearen komenigarritasuna helarazi zien, horrela, Erresuma Batua bertan erosoago sentitu dadin.

Bere aldetik, Grezian hauteskundeak izan dira 2015eko urtarrilean eta irailean, eta herrialdean aldi politiko barri bat ireki dutela esan genezake. Urtarrilean, greziarrek abantaila nabarmena eman zioten ezker muturreko Syriza alderdiari, zentro-eskuineko Demokrazia Berria alderdiarekin alderatuta.

Alexis Tsipras lehen ministroa urte bereko urtarrilaren 26an hasi zen bere funtzioak betetzen, SYRIZA eta ANEL alderdien koalizio-gobernuan, baina 2015eko abuztuaren 20an bere kargua utzi eta hauteskundeak deitu zituen Europako Batzordearekin, EBZ eta EMERekin hirugarren «erreskate-programa» adostu eta astebetera. Estatuak duen zor publikoa eta Syrizako diputatuen ia herenak Tsiprasek adostutako programaren aurka zeudela kontuan hartuta, lehen ministroak bere kargua uztea eta hauteskunde aurreratuak ospatu zitezela ahalbidetzea erabaki zuen. Hauteskundeetan Syrizak irabazi du, argi eta garbi, boto guztien % 35,46 lortu baitu, Demokrazia Berriak lortu duen % 28,10ekin alderatuta; hala, lehen indarra bihurtu da berriz ere, eta Greziako hauteskunde-legeak boto gehien jasotzen dituen hautagaitzari eskaintzen dizkion 50 aulkien bonusa bereganatu du.

Greziaren eta nazioarteko hartzekodunen artean egin diren finantziarioari buruzko akordio-saiakerak (erreformen orde) bereziki konplexuak izaten ari dira. Atenasen eta eurogunearen arteko tentsioa nabarmena da, herrialde heleniarrak horiek ez ordaintzeko arriskua dela eta.

Europar Batasunaren ekialdean kokatuta dauden herrialdeak Batasunera gehitzeko aurreikuspenei dagokienez, aldaketa esanguratsuak gertatu dira. Europar Batasuna Ekialdeko Europako eta Hegoaldeko Kaukasoko sei estatu kiderekin (Ukraina, Moldavia, Georgia, Azerbaijan, Bielorrusia eta Armenia) bildu zen maiatzaren 21ean

eta 22an Rigan antolatutako Ekialdeko Elkartze Gailurrean, hala, bi blokeen hurbilketa adosteko. Errusiak bereziki zaindu zuen gailurra, bere eragin-herrialdeetan boterea galtzeko beldurrez, baina proiektua dezente hedatu zen 2013. urtera arte. Dena den, ikuspegiak aldatu egin ziren lehertutako krisiaren ostean, orduan oraindik Ukrainako lehendakaria zen Víctor Yanukóvich jaunak uko egin baitzion, Moskuren presioak zirela-eta, EBrekin itundutako elkartze askerako akordioa sinatzeari; horrela, Maidánen manifestazioak eta Yanukóvichen erorketa gertatu ziren, Errusiak Krimea hartu zuen eta Donbáseko gerra abiarazi zen, milaka hildako eta Errusiaren eta Europaren arteko merkataritza arloko liskarrak eraginez.

Gailurrari esker, Europar Batasunak bere bazkide independente eta soberanoekin harreman estuagoak eta bereziagoak zehazteko ahalegina egin behar duela ikusi da. EBk konpromiso sendoa du sei bazkideekin, horietako bakoitzak EBrekin mantendu nahi dituen harremanekin lotuta dituen helburuak dena delakoak direla. Lankidetzaren irismena eta sakontasuna Europar Batasunaren eta estatu kideen helburu eta premien arabera dira, baita aldaketen erritmoaren arabera ere.

Europaren helburuak eta kasuan kasuko bazkideen aukera europarra aitortu dira, Elkartze Akordioetan berresten den moduan. Era berean, erreforma-programak ekialdeko bazkideengan duen garrantzia eta instituzio sendo eta gardenagoak (ustelkeriarik gabe) ezarri beharra berretsi dute, berriz ere, buruzagiek.



### **III. EUSKAL ERAKUNDEEK 2014AN ZEHAR EUROPAR BATASUNEAN EGINDAKO JARDUKETAK**

Joan den urtean aurkeztutako txostenarekin gertatu zen moduan, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusian egoki iritzi diogu euskal erakundeek 2014. urtean egindako jarduketak irizpide honen arabera aztertzeari:

III.1. Eskualdeetako Komitean parte hartuz egindako jarduketak, hori baita Europar Batasunaren barruan, Batasunaren Tratatuetan ezarritakoaren arabera, ordezkaritza deszentralizatu izan dezakeen organo bakarra.

III.2. Europar Batasuneko Kontseiluan eta Europako Batzordeko komiteetan parte hartzeko egindako jarduketak. Europar Batasunaren inguruko gaietarako 2004ko abenduaren 9ko konferentziako akordioen baitan sartzen dira jarduketa horiek.

III.3 Europar Batasunean egindako jarduketak Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen eta interesen ondorioz gobernu-ekintzaren hainbat arloren inguruan.

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak Europar Batasunean egiten duen lana modu koordinatuan egiten da Euskadiren Europar Batasuneko Ordezkaritzaren eta Europako Gaietarako Zuzendaritzaren artean. Lan horren ezaugarri nagusiak dira Europako gaiekiko profesionalizazio-maila, jarduketan balio erantsi handia eta Jaurkitzako sailei, Foru Aldundiei, euskal udalei eta Euskal Autonomia Erkidegoko beste instituzio eta organo batzuei eta euskal agente sozioekonomiko nagusiei zerbitzu emateko espiritua.

Hori guztia Europar Batasuneko instituzio eta organoetan eta Europako sareetan eta foroetan euskal erakundeen presentzia indartzeko asmoarekin eta, azken finean, Euskadik Batasunean duen posizionamendua aberasteko xedearekin.

### III.1. Eskualdeetako Komitea eta Euskadiren parte-hartzea

Eskualdeetako Komitea (aurrerantzean ESKO) EBko eskualde eta udal guztien multzoa ordezkatzen duen batzar politikoa da. Maastrichteko Tratatuaren ondorioz sortu zen, 1992an, eta 1994ko martxoan ekin zion ibilbideari. Harrezkero, gero eta kontsulta-botere eta eragin handiagoa du, bai Erkidegoko legediari buruzko kontsultak jasotzeko, bai Europako politikako gai-zerrendako arazo garrantzitsuenak ebazten laguntzeko.

2014. urtea ESKOren 2009-2014 legealdiko azken urtea izan zen. Urte horietan, organoak bere kokapen instituzionala finkatu zuen Europako Batzordearekin lankidetzara antolatu zuen moduari eta Europako Parlamentuarekin sinatutako lankidetzak-akordio bati esker; izan ere, hura legealdi-prozesuan eta elkarrizketa politikoan duen eragin handia sendotzeko aukera berriak eskaintzen ari da.

Guztira 353 kide titular izan zituen (eta 353 ordezkari): Batasuna osatzen duten 28 Estatu-eremuko eskualdeetako lehendakariak, alkateak, zinegotziak, kontseilariak, diputatuak eta abar. Horien egitekoa Bruselara joatea da, ordezkatzen dituzten herritarren interesak defendatzera. Euskadiko kide titularra lehendakaria izan zen eta ordezkaria Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia.

Araudi europarra lantzeko prozesuaren barnean, erkidegoko instituzioek ESKOren iritzia eskatu behar dute nahitaez, eskualdeko edo tokiko eskumenei dagozkien edo horiek ukitzen dituzten jardun-eremuak direnean. Honako hauek dira nahitaez kontsultatu beharreko esparruak: garraioa, enplegua, gizarte-politika, Europako Gizarte Funtza, hezkuntza, lanbide-heziketa, gazteria eta kirola, kultura, osasun publikoa, Europa barneko sareak, ekonomia-, gizarte- eta lurralde-koherentsia, ingurumena eta energia, eta horrekin estalita geratzen dira EBren jardun-eremu gehienak. Nahitaez egin beharreko kontsultez gain, Kontseiluak, Batzordeak eta Europako Parlamentuak nahi dutenean kontsulta egin diezaiokete ESKOri eta ESKOk berak ere iritzia eman lezake bere kabuz.

Iritzi horiek Europako araudiari buruzko irizpen politikoen bidez ematen dira nagusiki, eta irizpen horiek gero Batzordera, Kontseilura edo Europako Parlamentura bidaltzen dira. Irizpenez gain, ESKOk txostenak eta ebazpenak egiten ditu honako helburu hauekin: Erkidegoko legediak udalerrietan eta eskualdeetan duen eragina adieraztea, Eskualdeetako Batzordeak EBko gai-zerrendan gaiak eransteko aukera izatea, eta unean uneko arazo politikoei buruzko iritzia ezagutaraztea. 2014an, ESKOk 57 irizpen eta 5 ebazpen onartu zituen.

Parlamentu baten antzera funtzionatzen du ESKOk, aholkua emateko kontsulta-organo soila izan arren. Bruselan 5 edo 6 osoko bilkura egiten dira urtean. Bertan parte hartzen dute, hura osatzen duten kideez gain, gonbidatutako beste zenbait pertsona eta hizlarik ere –EBn buru den kasuan kasuko herrialdeko goi-ordezkariek eta komisarioek batez ere–, gaurkotasunezko gaien inguruan eztabaidatzeko helburuarekin.

Honela dago osatuta: lehendakari 1, lehen lehendakariorde bat, beste 28 lehendakariorde (bat estatu kide bakoitzeko), bost talde politiko, 63 kidek osatutako mahai bat, 6 batzorde iraunkor (eta beste horrenbeste "ad hoc", premien arabera), delegazio nazionalak, lantaldeak eta eskualde arteko lobby taldeak.

Azken 5 urteetan, eskualdeko eta tokiko ordezkarietarako batzar politiko gisa eskaini duen balio erantsia bereziki nabarmendu zen hainbat urtetarako 2014-2020 finantza esparruari buruzko negoziazioetan, koherentsia-politikari buruzko neurri-sorta landu eta

onartzeko prozesuan, eta Europako 2020 Estrategiaren lurralde-dimentsioa finkatzeko egindako ahaleginekin. Gainera, maila anitzetako gobernantza printzipio politiko eta juridiko gisa aitortu da, baita haren kanpo-dimentsioa ere<sup>1</sup>

## **Euskadik 2014an zehar Eskualdeetako Komitean izan duen parte-hartzea**

Eskualdeko eta tokiko ordezkari-organoa den heinean, ESKOk EBn erabakiak hartzeko eginkizuna du eta, horregatik, araudi europarrari zuzenketak aurkeztea da parte hartzeko eta euskal instituzioetatik organo horretako erakundeetara ideiak helarazteko bide nagusia. ESKOk Europako erabakitze-prozesuan duen kontsultajarduera deitutakoa da.

Gainera, Eusko Jaurlaritzak beste jarduera paralelo batzuetan parte hartu du, eta txosten honetan horiei erreferentzia egingo diegu, garrantzitsuenak zein iruditu zaizkigun kontuan hartuta.

**1. Eranskinean**, Eusko Jaurlaritzak batez ere 2014an izan duen parte-hartzea, parte hartu den ekitaldia, ordezkariaren izena, jarduketa-mota eta data ikus daiteke laburpen-taula batean.

**1. Erkidegoko araudiari aurkeztutako zuzenketei dagokienez**, Eusko Jaurlaritzak 5 osoko bilkuratan parte hartu du eta, horrez gain, 85 zuzenketa egin ditu; horietako 81 organo horren aurrean aurkeztu ditu, horietako 70 onartu direlarik.

**2. Eranskinean**, zuzenketa horiei buruzko informazio zehatza kontsulta daiteke.

Bigarrenik, zuzenketa bat aurkeztu ahal izateko ESKOko beste 5 kideren sinadura behar denez, 2014an hainbat eskualde eta udalek zuzenketa-proposamenak bidali zizkieten Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiari, 304 zuzenketa-proposamen guztira, Jaurlaritzaren babesa lortzeko eta horrela zuzenketak elkarrekin aurkeztu ahal izateko. Dagokion azterketa egin ostean, eta jasotako guztietatik, 210i eman zitzaizen babesa, hau da, hartutako zuzenketa-proposamenen %70ari.

**3. Eranskinean**, beste eskualde batzuek landutako eta Euskadirekin batera aurkeztutako zuzenketak ikus daitezke.

Azkenik, aipatu beharrekoa da, Eskualdeetako Komitearen jarduera guztia aurrera eramateko, aldizka elkartzen direla kideak, osoko bilkurak egin aurretik, talde politikoetan nahiz estatuko delegazioetan.

**2. Osoko bilkurez gain**, ESKOk ekitaldi berezi bat antolatu zuen 2014an, **Eskualde eta Hirien Europako Gailurra Atenasen**. Martxoan egindako gailur horretan 1.400 pertsonak parte hartu zuten, horien artean, estatuko, eskualdeko eta tokiko botere exekutiboko eta legegileko kide ugari, lobby elkarteetako ordezkariak, erakunde europarretako kazetariak eta adituek, eta Greziako sozietate zibileko agenteek. Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia ere bertan izan zen, Eusko Jaurlaritzaren izenean.

---

<sup>1</sup> ESKOtik irten den mahaiaren txostena (2009-2014), 2015eko urtarrilaren 29an onartua.

Gailurraren helburua estatuan, eskualdean eta tokian bertan egindako ahaleginak ebaluatzea izan zen, betiere hazkundera eta enplegua berreskuratzeko helburuarekin. Era berean, maila altuko eztabaida bat izan zen Europako buruzagi politikoekin. Bertan, maiatzeko hauteskunde europarrak eta EBren etorkizuna eztabaidatu ziren.

Gailur hori ESKOk bi urtez behin antolatzen dituen eskualde eta hirietako gailur europarretako bat da eta, bertan, tokiko eta eskualdeko erakundeetako ordezkariak Europar Batasunak aurrez aurre dituen erronka nagusien inguruan eztabaidatzen dute. Azken urteetan gailurrak ospatu dira Erroman (2007), Pragan (2009), Kopenhagen (2012) eta Atenasen (2014).

**3. ESKOren 20. urteurrenaren ospakizuna.** Dagoeneko 20 urte igaro dira ESKO herritarren zerbitzura jarri zenetik eta, horrenbestez, hainbat oroitzapenezko ekitaldi antolatu ziren. Horietan, kideek erakundearen etorkizuneko norabidearen inguruan eztabaidatu zuten. Ibilbide-orri bat ezarri zuten ESKOren eginkizun politikoa eta instituzionala sendotzeko, eta haren lurralde-izaera erabiltzeko, hark EBn erabakiak hartzeko orduan duen eragina areagotzeko helburuarekin.

Onartutako Ebazpenaren helburua zen herritarrek EBrekiko zuten konfiantza berreskuratzea, maila anitzeko Batasuna sustatzea, eta tokiko eta eskualdeko erakundeek EBn erabakiak hartzeko orduan duten ordezkari-tza sendotzea.

Eusko Jaurlaritzak ere ESKOren etorkizunari eta erabakiak hartzeko orduan duen eraginari buruzko bere ekarpena egin zuen, honako eskaera hauek azpimarratu behar direlarik: irizpenen kalitatea hobetzea, mezu politiko argiagoak eskainiz; subsidiarotasun-printzipioa modu arduratsuan aplikatzea eta, hala badagokio, ESKOk Europako Justizia Auzitegiaren aurrean duen errekurtsioa erabiltzea; Europako agenda politikoan inplikazio handiagoa izatea eta erkidegoko instituzioekin lankidetzara handiagoa izatea; erkidegoko instituzioetan eta organoetan eskualdeetako hizkuntza ofizialek duten aitorpena areagotzen jarraitzea, baita "instituzio" statusa lortzeko ere.

Gainera, ESKOk hausnarketa sakona egin behar duela uste du Eusko Jaurlaritzak, eskualdeko eta tokiko egitura politikoek Batzordean izan behar duten elkarbizitzaren inguruan, hain zuzen, horrela, horietako bakoitzaren interesak modu egokian bideratu eta aniztasunari ahalik eta probetxurik handiena ateratzeko. Zentzu horretan, legegintzako eskumenak ditugun eskualdeek ESKOren barnean gure espezifikotasunekin bat etorriko den funtzioa izan behar dugula uste dugu, horrela, Batzordeak pisu handiagoa izango bailuke Erkidegoko erabakiak hartzeko orduan.

**4. Europako maila anitzeko gobernantza eskutitza** 2014ko apirilko osoko bilkuran onartu zen. Eskutitza horretan hainbat balio komun zehazten dira eta gobernantza europar egokiaren printzipio eta prozesu zehatzak definitzen dira. Eskualdeko eta tokiko erakundeek eztabaida europarrean parte hartzeko duten legimititatea azpimarratzen du, eta Batasuneko politikak eta legedia prestatu, abian jarri eta ebaluatzeko orduan modu estrukturalen eta sistematikoan parte hartu dezatela gomendatzen du.

Dagoeneko estatua baino maila apalagoko erakundeetako 200 ordezkari sinatu dute Eskutitza, besteak beste Eusko Jaurlaritzak, maiatzaren 9an, Europaren egunean, atxiki baitzen eskutitza horretara.

**5. Subsidiariorotasunaren Defentsa** ere oso jarduera-bloke garrantzitsua da Eskualdeetako Lantaldearen barnean.

2009ko Lisboako Tratatuak ardura gehiago eman zizkion ESKOri subsidiariorotasuna zaintzeko, eta printzipio hori ez betetzeagatik Europako Justizia Auzitegian errekurtsioa jartzeko legitimatu zuen.

Horren ondorioz, ESKOk ematen dituen Irizpen guztietan berariaz aipatu behar da subsidiariorotasuna betetzen dela eta gobernu-maila desberdinen arteko eskumenen oreka errespetatzea zaindu behar da, bete ezean, aipatutako bide judiziala erabiltzea justifikatuko bailitzateke. Eusko Jaurlaritzak printzipio hori errespetatzen du zuzenketak planteatzeko orduan.

Europako Parlamentuaren lehendakariak eta ESKOren lehendakariak 2015eko otsailaren 5ean sinatutako lankidetzaren ondorioz, bi alderdi horiek lankidetzan jardungo dute, batik bat, subsidiariorotasunari, lurralde-inpaktuko ebaluazioei eta lan-plan legegileari dagokionez.

Irizpenetan islatzen den ohiko subsidiariorotasuna zaintzeaz gain, ESKOk arau europar jakin batzuk aukeratzen ditu Europako Batzordearekin batera, eta subsidiariorotasunari buruzko azterketa xehatuagoa egingo du horien inguruan. 2014. urtean, Eusko Jaurlaritzak bere ekarpena egin du 3 gai garrantzitsu hauen inguruan:

- Airearen kalitateari buruzko Europako legeriaren berrikuspina.
- Ekoizpen ekologikoaren esparru legal eta politikoaren berrikuspina.
- Europaren hondakin arloko helburu gakoaren ezarpena.

**6. Era berean, Eusko Jaurlaritzak ESKOk antolatutako Europako inbertsio-funtsen eta egitura-funtsen inbertsio publikoari, hazkundeari eta estatuen baterako finantziarioari buruzko **kontsulta espezifikoa** batean parte hartu du. Kohesio-politikako programen baterako finantzaketarik ezak Europako inbertsio-funtsen eta egitura-funtsen helburu tematikoak lortzeko orduan zenbateraino eragin dezakeen ebaluatzea zen helburua, horiek Europa 2020 Estrategiaren hazkundeari eta enpleguari buruzko helburuekin bat baitatoz.**

**7. Foroetan zenbait gai buruzko txostenak aurkeztuz, euskal ordezkariak** Euskadin gauzatzen ari diren politikak edo gaurkotasun-gaien inguruko praktika egokien adibideak azaldu dituzte Bruselan, betiere esperientzien trukaketa eta elkarren arteko ikaskuntza oinarritzat hartuta, eta eskualdeek eta udalerriek helburu europarrak lortu ditzatela laguntzeko helburuarekin

Bilboko Udaleko alkateorde eta Kultura eta Hezkuntza zinegotziak Bilboren kasua aurkeztu zuen, praktika egokien adibide gisa, "Kultura eta sormena: Europako herrialde eta hiriak aitzindari" Konferentzia Europar batean. Jardunaldiaren helburua tokiko garapenarekin lotutako sektore kultural eta sortzaileen kasu arrakastatsuen partekatzea eta sustatzea izan zen, Europar Batasunak 2014-2020 aldirako dituen finantziario-aukera berrien esparruan. Izan ere, Europar Batasunak kulturaren eta sormenaren aldeko apustu sendoa egin du, hazkunde europarra dinamizatzeko potentziala duen sektorea den heinean.

Open Days edo jardunaldi irekien esparruan, hau da, Europako eskualde eta hirien praktika egokiak eztabaidatu eta trukatzeko urteroko hitzorduan, Euskadik berriz parte hartu zuen, hamar urtez jarraian. "Elkarrekin hazi: guztiontzako inbertsio zentzuduna" lelopean, Open Days jardunaldietan 5.500 pertsona baino gehiago bildu ziren 4 egunetan. Horiek zenbait tailer eta mintegitan parte hartu zuten, Bruselako hainbat txokotan.

Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzak "Itsas industriaren hazkunde adimentsurako itun berriak" izeneko hitzaldia antolatu zuen, Euskadiren Europar Batasunerako Ordezkaritzan, Liguria, Southwest Finland, Pays de la Loire eta Asturiasko bere bazkide europarrekin batera. Bertan, itsas industriaren aplikazio- eta espezializazio-eremu berriak jorratu zituen, hazkunde adimentsua lortzeko helburuarekin.

Bertan, hizlari gisa parte hartu zuen Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako zuzendariak. Hark Lanbide Heziketak itsas industriari egiten dion ekarpena eta espezializazioa defendatu zituen, eta euskal lanbide-heziketatik laguntza hori eskaintzeko lan egiten diren gakoak azaldu zituen: prestakuntza integratua, berrikuntza aplikatua, ekintzazailtza eta nazioartekotzea.

**8. Azkenik, ESKOren barruan** hainbat gairi buruzko **taldearteetan** parte hartzen du Euskadik, hala nola:

- REGLEG (Legegintzako Eskumena duten Eskualdeak) – CALRE (Legegintzako Eskumena duten Parlamentuak) taldeartea.
- Automobil-industriaren taldeartea
- Osasunaren taldeartea

### **III.2. Europar Batasuneko Kontseiluan eta Europako Batzordeko komiteetan izandako parte-hartzea**

Euskadik Europar Batasuneko Kontseiluan eta Batzordeko komiteetan parte hartzen du, Europar Batasunarekin lotutako Gaietarako Konferentziako Akordioak direla eta.

Hori dela-eta, bi foro horizontal daude Autonomia Erkidegoek Europako gaietan parte hartzeko, konferentzia sektorialetan gai espezifikoak tratatzea eragotzi gabe, eta bietan parte hartzen du Euskadik.

Foro horiek dira:

- Europako Erkidegoetako gaietarako Estatuko Administrazioaren – Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko Bitariko lankidetzabatzordea.
- Europar Batasunaren inguruko gaietarako konferentzia (CARUE)

2014. urtean zehar, Bitariko lankidetzabatzordeak ez du bilerarik egin, eta hori termino beretan jasota geratu zen joan den urtean aurkeztutako txostenean, 2013. urteko jarduketei buruzkoan.

Europar Batasunaren inguruko gaietarako konferentzian (CARUE) Estatuko Administrazio Orokorreko eta Autonomia Erkidegoetako ordezkariak elkartzen dira, eta foro horretan artikulatzen dira horizontalki Autonomia Erkidegoek Europako Erkidegoko gaietan parte hartzeko dituzten sistemak.

2014an zehar, aurreko urteetako joerari jarraituz, apenas izan du jarduerarik CARUEk. Izan ere, Konferentziaren Osoko Bilkurarik ez da egin 2011ko otsailaren 7tik, Barne-erregelamenduak gutxienez urtean birritan egin behar dela ezarri arren. Eta Konferentziaren lan-organoak, Koordinatzaileen Batzordea deiturikoak, hiru aldiz egin du 2014. urtean, apirilaren 8an, ekainaren 17an eta irailaren 9an, hain zuzen.

Bi foro horien jarduera ia hutsalak eta egindako bileretan jorratutako gaien garrantzia txikiak nolabait aditzera ematen du Estatuko gobernuaren interesik eza autonomia-erkidegoen parte-hartzea sustatzeko, eskumena eta interesa kontuan izanda, gobernuaren jarduera-agendan sartuta egon beharko luketen Europar Batasuneko gaietan.

Konferentziaren baitan, jarraian xehetasunez azalduko ditugun bi gai daude, autonomien parte-hartzean duten garrantziagatik eta, zehazkiago, Euskal Autonomia Erkidegoko instituzioek Europar Batasunean egiten dituzten jarduketei erreparatuta.

## **1. Eusko Jaurlaritzaren (eta Foru Aldundien) parte-hartzea Europar Batasuneko Kontseiluan**

2014. urtean, Euskadik Europar Batasuneko Kontseiluaren honako prestakuntza hauen ordezkariak automatikoa izan du:

- a. Lehiakortasun Batzordea, Kontsumo arloan, 2014ko lehen seihilekoan. Euskadi Kontsumitzaileen Babesari eta Informazioari buruzko lantaldearen 2 bileratan izan da, martxoaren 18an eta apirilaren 1ean. Ez da Kontseiluaren osoko bilkuran izan, lehiakortasun-prestakuntza hori ez baitago autonomia-erkidegoen partaidetzara guztiz irekia.
- b. Enplegu, Gizarte Politika, Osasun eta Kontsumitzaileei buruzko Kontseiluko Enplegu eta Gizarte Politika arloetan, 2014. urteko bigarren seihilekoan.

Denboraldi horretan, Eusko Jaurlaritza kasuan kasuko lantaldearen hogeita hamar bilera ingurutan izan da, baita Kontseiluko prestakuntza honen abenduko osoko bilkuran ere. Garaiko Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuak, Juan María Aburto jaunak, euskaraz hitz egin zuen abenduaren 11ko bilkura horretan.

**4. Eranskinean**, lantaldeak izan dituen bileren zerrenda jasotzen da, horiei dagozkien datak eta jorratutako dosierrak barne.

- c. EBko Hezkuntza, Gazteria, Kultura eta Kirol Kontseiluko Gazteria eremuan, hori ere 2014ko bigarren seihilekoan.

Seihileko horretan, Eusko Jaurlaritza Gazteria lantaldeko bost bileratan izan zen, baita Kontseiluko prestakuntza horrek abenduan izan zuen osoko bilkuran ere. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuak ere euskaraz hitz egin zuen abenduaren 12ko bilkura horretan.

**5. Eranskinean**, aipatutako lantalde horren bileren datak xehatzen dira, baita horietan jorratutako gaiak ere.

Bestalde, 2014an, Europar Batasuneko Ekonomia eta Finantza Kontseiluko (ECOFIN) Lantaldeetan parte hartzen jarraitu da. Foro horietako parte-hartzea Zerga Kideketarako Sailak gidatzen du. Organo horrek Eusko Jaurlaritza eta hiru Foru Aldundiak biltzen ditu.

Joan den urteko txostenean adierazi zen moduan, Euskadik lantaldeetan bakarrik parte hartzen du, Kontseiluaren osoko bilkura ez baitago gure partaidetzara irekia.



Honako hauek dira Euskal Autonomia Erkidegoak parte hartzen duen Lantaldeak:

1. D4 taldea, Zerga kontuei buruzkoa, bi formaziotan banatua:

- Zeharkako zergak
- Zuzeneko zergak

2. D5 taldea, Jokabide Kodea, enpresen fiskalitateari buruzkoa eta dagokion azpitaldea.

**6. eranskinean**, 2014an euskal instituzioek parte hartu duten ECOFINeko Lantaldeen bilerak kontsulta daitezke.

## **2. Euskadiren parte-hartzea Europako Batzordeko komiteetan**

2014. urtean, Eusko Jaurlaritzako ordezkariak, Euskal Autonomia Erkidegoak Europako Batzordeko zenbait komitetan bete behar duen ordezkari-tza autonomikoa betetz, 16 bilera hauetan parte hartu dute:

- Klima Aldaketari buruzko komitean: Egun hauetan izan dira 8 bilerak: urtarrilaren 22an, martxoaren 12an, apirilaren 2an, maiatzaren 7an, ekainaren 4an, uztailaren 9an, urriaren 15ean eta abenduaren 11n.
- Kontabilitate Informazio Sarearen Komitea: 5 bilera egin ditu, martxoaren 19an, apirilaren 11n, maiatzaren 19an, irailaren 10ean eta azaroaren 5ean.
- Horizon 2020 Komitea Ikerketa eta Berrikuntza Programa Markoa (2014-2020) - "Energia segurua, garbia eta eraginkorra": Bilera 1
- Horizon 2020 Komitea Ikerketa eta Berrikuntza Programa Markoa (2014-2020) - "Elikadura-segurtasuna, nekazaritza eta basogintza jasagarriak, itsas eta barneko uren ikerketa, eta bioekonomia" prestakuntza: 2 bilera, urriaren 23an eta azaroaren 26an.

Aurreko aldietan bezala, ordezkari-tza autonomiko horren eraginez, komitearen bileretan parte hartu behar izan da, eta, gainera, parte hartu den bileren aktak egin eta banatu behar izan dira, beharrezko dokumentazio osagarriaz gain; horiek autonomia-erkidego bakoitzeko kasuan kasuko esparruko arduradunei bidali behar zaizkie.

### III.3 GOBERNU-EKINTZAREN ONDORIOZ EUROPAR BATASUNEAN EGINDAKO JARDUKETAK

Jarraian azaltzen dira xehetasunez euskal erakundeek Europar Batasuneko instituzioetan 2014an egindako jardueraren urrats nagusiak, gehien errepikatu diren jarduketak eta ukitu diren gaiak, Euskadiren eskumenak eta Erkidegoan esku hartzeko arloak kontuan izanda.

#### 1. Jaurlaritzako eta beste euskal erakunde batzuetako goi mailako kargudunek erkidegoko hiriburura (eta lotutakoak) egindako bisita instituzionalak

Paragrafo honetan Eusko Jaurlaritzako maila goreneko kargudunek 2014an zehar Erkidegoko hiriburura egindako bisita instituzionalak eta bisita bakoitzaren gaia zehazten dira, ordena kronologikoan.

- Urtarrilaren 30ean, Arantza Tapia Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuak garai hartan Flandesko ministro-lehendakaria zen Kris Peeters jaunak deitutako "abangoardiako eskualdeak" deiturikoen Goi Mailako bileran parte hartu zuen. Tapia sailburuordearekin batera, Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordea eta Europako Gaietarako zuzendaria izan ziren.

Eztabaidak egin zituzten "abangoardiako" 15 eskualdeen lan-jardunaldian hazkunde-politika berriak bultzatzeaz arduratzen diren Europako Komisarioen kabineteetako kideekin zein Europako Batzordeko ordezkariekin Europako industria- eta berrikuntza-politikarako ikuspegi berri bat, espezializazio adimendunean oinarritua, elkarrekin garatzeko.

Ekimenarekin bat egindako eskualdeak konprometiturik daude espezializazio adimendunarekin, ez Europako kohesio-politikaren *ex ante* baldintza gisa, haien industria- eta berrikuntza-politiken printzipio gidarizat baizik, lehiakortasuna eta hazkunde bultzatzearen.

- Urriaren 21ean, Arantza Tapia Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuak Europako Batzordearen Enpresa eta Industria Zuzendaritza Nagusiak antolatutako kluster-politikei buruzko konferentziaren inaugurazio-saioan parte hartu zuen.

Tapia sailburuak kluster-politikak espezializazio adimenduneko estrategiak ezartzeko orduan izan dezakeen eginkizuna azpimarratu zuen. Era berean, "Abangoardiako Ekimenak" politika industrialaren eta berrikuntzaren esparruan praktika egokiak trukatzea errazten duela adierazi zuen, sektore arteko lankidetzak aukera berriak sortzeaz gain.

- Azaroaren 13an, Arantza Tapia Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuak "Abangoardiako Ekimeneko" kide diren eskualdeetako ordezkari politikoen bileran parte hartu zuen, Milanen.

Tapia sailburuak "Milango Deklarazioa" sinatu zuen, eta, haren bitartez, Europarako lehentasunezko eremuetan balio-kateak garatzea ahalbidetuko duten proiektuak sortu eta horietan inbertitzen laguntzea hitzematzen dute sareko kideek.

Horrez gain, aurkako inguruneetan aplikazio energetikoetarako fabrikazio aurreratuari buruzko proiektu pilotuan alde biko bilera bat egiteko aprobetxatu zuen parada, hain zuzen ere bazkide eskoziarrekin.

- Azaroaren 20an eta 21ean, Lehendakaritzako idazkari nagusiak zenbait bilera izan zituen Europako Batzordeko Ikerketa eta Berrikuntza eta Enpresa eta Industriako Zuzendaritza Nagusietako funtzionario jakin batzuekin. Euskadiren 2020rako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana aurkeztea zen bilera horien xedea.
- Orduan Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburu Juan Maria Aburto jaunak Enplegu, Gizarte Politika, Osasun eta Kontsumitzaileei buruzko Kontseiluan parte hartu zuen, 2014ko abenduaren 11n, Enplegu eta Gizarte Politika esparruetan; hura Bruselan ospatu zen, arestian aipatu den moduan. Hark euskaraz hitz egin zuen autonomia-erkidegoen jarrera aurkezteko orduan, Enplegu Zerbitzuen Europako Sareari (EURES) buruzko proposamenari, langileek mugikortasun-zerbitzuetara duten sarbideari, eta lan-merkatuen integrazio handiagoari buruzko proposamena egitean. Gainera, Kontseiluan zehar Marianne Thyssen Enplegu, Gizarte Gai, Gaitasun eta Lan Mugikortasuneko komisario europarrarekin elkartu zen.
- Cristina Uriartek, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuak, Batasunaren Hezkuntza, Gazteria, Kultura eta Kirol Kontseiluaren osoko bilkuran parte hartu zuen, abenduaren 12an, Gazteria arloan. Bere esku-hartzean, sailburuak autonomia-erkidegoen jarrera aurkeztu zuen, eta gazteria-politikak indartzearen garrantzia azpimarratu zuen, gazteek dituzten premiak konpontzeko orduan eraginkorrakoak izan daitezen eta, betiere, gaur egungo erronka sozioekonomikoei erantzun zehatz bat emateko gai izan daitezen. Hark euskaraz egin zuen hitzaldia.
- Eusko Jaurlaritzako Gazteriako eta Kiroletako zuzendaria eta Euskadiko Gazteria Kontseiluko lehendakaria Europako Batzordeko Enplegu, Gizarte Gai, Gaitasun eta Lan Mugikortasuneko Zuzendaritza Orokorreko gazte-enpleguko politika-arduradunekin bildu ziren apirilaren 1ean.
- 2014. urtean zehar, Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariak eta Bilboko Udaleko ordezkariak zenbait bilera eta jardueratan parte hartu dute lankidetzaren deszentralizatuaren eta itun berrien esparruko ekimen eta proiektu estrategikoei dagokienez. Bertan parte hartu dute, halaber, Europako eskualdeek eta hiriek, eta bilera Europar Batasuneko Nazio Batuek koordinatu dute (ART-UNDP programa).
- Urtarrilaren 29an, Bilboko Udaleko alkateordea, Ibone Bengoetxea, Bruselara joan zen kulturari eta sormenari eta hirien eginkizunari buruzko konferentzian hitz egitera; Eskualdeetako Lantaldean ospatu zen.
- Irailaren 10ean, Etxepare Institutuko zuzendaria Bruselara joan zen, Institutua EUNIC (Europar Batasuneko estatuetako institutu nazional kulturalen sarea) sare europarrean sartu dela eta.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Sustapenerako zuzendariak kulturari eta sormenari buruzko Europako Konferentzian parte hartu zuen azaroaren 19an, italiarrak Europar Batasunaren lehendakaritzan zeuden seihilekoan.

- Eusko Jaurlaritzako Merkataritza eta Turismoko sailburuordeak erakunde komunitarioek Turismoaren Egun Europarraren esparruan antolatutako Foroan parte hartu zuen, abenduaren 1ean. Sailburuordeak Euskadiren praktika egokiak aurkeztu zituen, teknologia berrien eta sustapen turistikoaren esparruan. Euskadi eta Veneto eskualdea izan ziren bertan parte hartzeko gonbidapena jaso zuten bakarrak.
- Azaroaren 3an eta 4an, Saioa Elejabarrieta Lemoako alkatea joan zen Bruselara, Europako Batzordearekin, Eskualdeetako Lantaldearekin eta Eurocitiekin hainbat bilera izan eta Europar Batasunak gazteria, enplegu eta kultura arloan mantentzen dituen politikak eta ekintzak lehen eskutik ezagutzera.

## **2. Euskadiren errealitatea Europan proiektatzea eta Erkidegoko aktualitateko gaitan posizionatzea**

2014an, Eusko Jaurlaritzaren esparruan posizionamendu-lan bat egin zen Europako Batzordeak Europa 2020 Estrategiaren inguruan egin zuen Kontsulta publikoa dela-eta, hark 2015ean egin duen bitarteko berrikuspenaren harira. Bertan, 5 departamentutako 9 zuzendaritzak parte hartu zuten, beren iritziak helaraziz.

Kontsulta horren xedea zen erakunde azpiestatalek Estrategiaren lehen urteetan bereganatutako esperientziaren inguruan duten iritzia ezagutzea, baita garapenean zehar kontuan izan behar diren beste elementu batzuei dagokienez ere.

2014an zehar, ahalegin handia egin da Euskadi KIC (Knowledge & Innovation Communities, hau da, Jakintza eta Berrikuntza komunitateak) esaten zaien horietan kokatzeko, batez ere Zahartze Aktibo eta Osasuntsuaren eta Fabrikazio Aurreratuaren esparruan eta Kroes Komisarioak bultzatutako Enplegu Digitalaren Koalizio Handiari gure ekarpena egiteko.

Europako Batzordearen, Europako Parlamentuaren eta beste erakunde batzuen aurrean zenbait aurkezpen egin dira Euskadi fabrikazio aurreratuaren edo itsas energiaren gisako gaitan egiten ari den lana azaltzeko, betiere Euskadiren irudia eta eskualde arteko lankidetzan duen inplikazioa hobetzeko helburuarekin.

Urtarrilean, Euskadik, Europako beste hamalau eskualderekin batera, "Abangoardiako Ekimena" sortu zuen, orduan Flandesko ministro-lehendakari Kris Peeters jaunaren proposamenean oinarrituz. Ekimen horren eraginez, espezializazio adimentsuaren estrategia gure politika industrialaren eta berrikuntzaren erdigunean kokatu behar da, lehiakortasuna sustatu eta hazkundera eta enplegua sortzeko helburuarekin. Konpromiso hori eskutitz batean jasota geratu zen, eta garai hartan Europar Kontseiluko lehendakari Herman van Rompuy jaunari bidali zitzaion.

2014an zehar, eta Batzordeak "Berpizkunde industrial europarraren alde" jakinarazpenean proposatu zuen ideiarekin bat etorri –haren bidez, "Especializazio Adimentsuko Plataformak" jarriko dira martxan enpresek beren lan-planak Europak definitutako lehentasunezko eremuekin lerrotatu ditzaten–, "Abangoardiako Ekimenera" atxikitako eskualdeek hertsiki lan egin dugu Europako Batzordeko zenbait zerbitzuekin (JRC, REGIO, ENTR eta RTD), Fabrikazio Aurreratuan Especializazio Adimentsuko Plataformaren diseinua abian jarri eta eragiteko helburuarekin.

Bestalde, azpiegiturak eta gaitasunak "mapatzeko" eginkizunean aholkularitza eskaini eta sustatzeko lanak gauzatu dira fabrikazio aurreratuaren esparruan. Zentzu horretan,

etorkizunerako 3 lan-ildo identifikatu dira: 3D inprimatzea (Flandes eta Holanda Hegoaldea dira haren buru), fabrikazio eraginkorra eta jasangarria (Katalunia eta Lombardia dira haren buru) eta aurkako giroetarako aplikazio energetikoetarako osagaiak (Eskozia eta Euskadi dira buru).

Abenduaren erdialdera aldera, Euskadiren EBrako Delegazioak "Abangoardiako Ekimenaren" inguruko bilera bat antolatu zuen Fabrikazio Eraginkorraren eta Jasangarriaren inguruan; bertan, IK4 eta Tecnalia korporazio teknologikoek parte hartu zuten.

Besteak beste, proiektuei laguntzeko lanak egin dira, Energiaren Aste Europarraren sarietarako hautagaitzen kasuan, esaterako, Energiaren Euskal Erakundearen aldetik.

Euskadik Open Days izeneko eskualde eta hirien foroan parte hartu du hamargarren aldiz. Foro hori urtero biltzen da eskualde-politikari buruz eztabaidatu eta hitz egiteko, eta urtero lehentasunezko gai jakin batzuk aurkezten dira. "New Alliances for Maritime Industries Growing Smart" (Itsas industriaren hazkunde adimentsurako itun berriak) izenburupean, eta Open Days horien esparruan, urriaren 6an eta 7an tailer bat egin zen Euskadiren Europar Batasunerako Delegazioaren egoitzan, Bruselan. Europako Batzordeak jardunaldietan parte hartu zuen, eta parte-hartzaileek egindako ekarpen guztiak jaso zituen, Europar Batasunak itsas sektorearekin lotuta etorkizunean egingo dituen ekintzetarako kontuan izateko.

2014. urtean, Europar Batasunak kulturaren, industria kulturalen eta sortzaileen, eta eleaniztasunaren, gazteriaren eta kirolaren esparruan gauzatutako politikaren barnean, 2014-2020 programazio berria martxan jarri dela azpimarratu behar da, eta batez ere, Creative Europe eta Erasmus+ Programak. Eusko Jaurlaritza, Etxepare Institutua, agintari publikoak eta euskal sektore kulturala eta sortzailea sustatu eta kokatzeko helburuarekin lan egin da, Creative Europe Euskadi Antenarekin batera; era berean, sormen eleaniztunerako guneak defendatu eta ireki nahi dira agenda europarrean, eta Euskadi sare eta ekimen interesgarrietan kokatu nahi da, sormen eleaniztunaren balio erantsia eta euskara defendatuz.

Belgikako sustapen kulturalari dagokionez, euskal kultura Bruselan sustatzeko urteko agendari jarraitutasuna eman zaio. Horretarako, Euskal Kultura eta Talentuaren IV. Ziklo Europarra ospatu da, Europar Batasunerako Euskal Delegazioak eta Etxepare Institutuak elkarrekin gauzatutako ekimena.

Donostia 2016 ekimenari dagokionez, ekimen eta proiektu europarretan gehiago sartu eta parte hartu dezala lortu nahi da, eta ekimenak Europako instituzioekin eta Kulturaren beste Hiriburu Europar batzuekin loturak egin ahal izatea lagundu da. Horretarako, harreman europarrak erraztu dira jaialdi eta foro kultural europarrei dagokienez, eta Donostia 2016 ekimenak proiektu europarretan duen inplikazioa handitzen saiatu da.

Hezkuntza-politikari dagokionez, Erasmus+ Programaren aplikazioak markatu du agenda europarra; gainera, funtsezko ekimenak jarri dira martxan unibertsitateen nazioartekotzea sustatzeko, baita hezkuntza-enpresa ekimen estrategikoak ere. Esparru europar horretan, Euskadik euskal unibertsitateen posizionamendua defendatu du, Lanbide Heziketaren eta haren nazioartekotzearen bikaintasuna, hezkuntzaren lurralde-dimentsioa, eta Euroeskualdearen balio erantsia, baita mugikortasun europarreko proiektuak eta sareko lana/lankidetzaren ere, ekimen europarren esparruan.

Europar Batasuneko euskal interesak gehiago lerrokatu eta defendatzeko helburuarekin lan egin da, baita Euskadik agenda europarrean duen partaidetza sustatzeko ere, eta horretarako, goi-hezkuntzako eta lanbide-heziketako ekintzak egin dira. Horrela, Unibertsitateek Erasmus+ Programan duten inplikazioa babestu da, horiek unibertsitate-mugikortasunerako eta nazioartekotzerako ekintzetan duten partaidetza sustatu da (adibidez, maiatzaren 28tik 30era Lanbide Heziketako Nazioarteko Kongresua ospatu zen Donostian, eta bertan parte hartu zuten Europako Batzordeko hiru txostengilek; era berean, euskal Lanbide Heziketaren sektoreko ordezkariak Lanbide Heziketaren eta Enpresaren Europako Foroan parte hartu zuten Bruselan, irailaren 23an eta 24an).

Garapenerako lankidetzaren agenda europarrari eta haren lehentasunei dagokienez, 2014. urtean lankidetzaren deszentralizatuaren kontsolidazioa eta posizionamendua azpimarratu behar dira, baita lankidetzaren eremuko itun estrategikoen negoziazio-aldia eta Lankidetzaren Urte Europarra antolatzeke ere.

Agenda horri jarraiki, Euskadiren lan-plana eta lehentasunak Europak sustatzen duen lankidetzaren deszentralizatuaren defentsan eta posizionamenduan oinarritu dira, baita lankidetzaren, aholkularitzaren eta aukera europarren euskal lankidetzaren agenteekiko hurbiltzearen lurralde-ikuspegian ere, instituzio europarren harreman zuzenean eta kide europarren lan bateratuan.

Alde horretatik, Euskadi kanpo-lankidetzako lantaldearen koordinatzaile aukeratu dute Europako Itsas Eskualde Periferikoen Konferentzian (CRPM). Izan ere, abenduaren 9an post 2015 nazioarteko agendari buruzko konferentzia bat antolatu zen nazioarteko bazkideekin eta Euskal Fondoarekin, Euskadin Europako aukerak ezagutzera emateko; gainera, Europar Batasunak lankidetzaren esparruan gauzatu dituen ekimenei buruzko konferentzia berriemaile batean parte hartu da, abenduaren 18an, Gasteizen. Euskadik "Lankidetzaren deszentralizatuaren esparruko lankidetzaren printzipio estrategikoak" izeneko ekimenean duen partaidetza babestu da, Europako tokiko eta eskualdeko agintariekin eta Nazio Batuekin batera, baita lankidetzaren arloko Europako Itun Estrategikoan ere.

Politika turistikoari dagokionez, hedapenean laguntzeko ekimenak gauzatu dira eta EBk turismoaren arloan gauzatu dituen ekimenean parte hartzea ahalbidetu da, baita finantziario-ildoak (COSME) agente politiko eta euskal sektore turistikoari ere.

### **3. Dosier interesgarri batzuk tratatzeko baliagarri izan diren beste bisita eta elkarretaratze batzuk**

Euskal instituzioen ohiko eginkizunetan sartzen da Europar Batasunean jarduketak egitea. Alde horretatik, azpimarratzekoa da 2014an zehar hainbat kontaktu formal nahiz informal egin direla Lehiaren Zuzendaritza Nagusiko arduradunekin, euskal instituzioek Lehiaren eta Estatuaren Laguntzen Zuzenbideari buruzko dossier batzuen inguruan duten jarrera azaltzeko.

Estatuko Laguntzen dossierrei dagokienez, Eusko Jaurlaritzak bere jarrera defendatu eta jakinarazi du dagoeneko itxita dauden espedienteen bitartez. Hori da, esaterako, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Babestuaren erregimen-espedientearen, Eusko Jaurlaritzaren I+G+b programen, euskal atunketariak Indiako Ozeanoan duten segurtasunaren aldeko laguntzen edo izaera fiskaleko beste neurri batzuen kasua. Azken horietan, eta Foru Ogasunei berriaz irekitako espedienteak ez izan arren, horiek hainbat informazio helarazi behar izan dute, duten gaitasun fiskala dela-eta, Europako Batzordeak estatu kide guztiei helarazi dizkien galdetegi orokorren

esparruan. Miniopor fiskalei eta kreditu fiskalei buruzko C-184/11 gaiari dagokionez, oso gertutik jarraitu dira Eleanor Sharpston abokatu nagusiak 2014ko urtarrilaren 23an onartu zituen ondorioak eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak 2014ko maiatzaren 13an emandako epaia.

Bestalde, 2014ko martxoaren 26an eta 27an, Eusko Jaurlaritzak "Plangintzaren eta ebaluazioaren kultura, kudeaketa publikoaren arloan" jardunaldiak antolatu zituen Bilboko Merkataritza Ganberan; bertan, tokiko nahiz instituzio europarretako adituek parte hartu zuten. Instituzio europarrek legeak hobeto egiteko, Europako zuzenbidearen lanketa eta aplikazio eraginkorra optimizatzeko, eta Europako arauak lurralde eta herritarrengan duten eragina ebaluatzeko metodoetan sakontzeko egiten ari diren ahaleginen esparruan oinarritu ziren jardunaldiak.

Gainera, euskal ekonomiarentzat garrantzitsuak diren sektoreetarako interesgarriak diren topaketak eta Jaurlaritzako ordezkarietarako laneko agendak antolatu dira, iritziak eta esperientziak elkarrekin trukatzeko eta interes bereziko kontaktuak egiteko.

Gainera, abenduaren 4an eta 5ean, Energia Katedraren zuzendaria eta Orkestrako Estrategia Katedrako zuzendaria Industria, Energia eta Berrikuntza Zuzendaritza Nagusiko funtzionarioekin bildu ziren beren espezializazio-eremuak eta jarduera ezagutzera emateko helburuarekin. Bilera horien ondorio zuzen gisa, Europako Batzordeko eskisto-gasari buruzko aditu-talde batean parte hartzeko gonbidapena egin zitzaion Energia Katedrari.

#### **4. Aktualitateko konferentzia eta debateetan izandako parte-hartzea. Euskal Herriarentzat interesa duten ekitaldi eta informazio-bilerak antolatzea eta betara joatea**

Brusela da Europako Erkidegoko jardueraren hiriburua eta, beraz, aktualitateko konferentzia eta debateetan esku hartzeko lekurik aproposena. Konferentzia eta debate horietan lor daiteke gure instituzioen eta eragileen intereseko informazioa eta jarduteko aukerak ere bertan topa daitezke.

2014. urtean zehar, Europako Batzordeko eta Parlamentuko hainbat ekitaldi eta saio informatzailetan izan gara, baita Eskualdeetako Lantaldean eta Europako Batzorde Ekonomiko eta Sozialean ere, garapen ekonomikoari buruzko gaietan.

Besteak beste, SPRik RIMek (Regional Innovation Monitor) antolatutako mintegian parte hartu duela azpimarratu behar da, Euskadiko espezializazio-estrategia adimentsua eta, bereziki, fabrikazio aurreratuaren estrategia aurkezteko helburuarekin.

Era berean, Energia Zuzendaritza Orokorrekin eta Itsasoko Gaien eta Arrantzaren Zuzendaritza Orokorrekin izandako topaguneetako partaidetza azpimarratu behar dugu (biak Europako Batzordearen barnean), Euskadiren posizionamendua eta itsas energien garrantzia esparru horretako erreferente gisa sendotzeari dagokionez.

Bestalde, Euskadiren Europar Batasunerako ordezkariak Europako Batzordeak abiarazitako "Ocean Energy Forum" delakoan parte hartu zuen Euskadik sektore estrategiko horretan duen kokapena azaltzeko. Foro horrek itsas energiaren sektorean inplikaturik dauden agenteak biltzen ditu, esperientziak trukatu eta esparru horretako arazoak konpontzen saiatzeko helburuarekin.

EBrako ordezkariak horrek Confebaskek Bilbon antolatutako ekitaldi batean parte hartu du programa europarrek ETEen eskura jartzen dituzten finantza-erremintak ezagutzera emateko xedearekin.

Era berean, IHOBE Ingurumen Sozietate Publikoak Europako Aste Berdean parte hartu duela aipatu behar da, ekonomia zirkularrak euskal enpresentzat irudikatzen dituen aukerak eta euskal sektore publikoak esparru horretan betetzen duen eginkizuna aztertzeko asmoz.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak Europako Batzordeak urtero egiten duen gonbidapenari erantzun dio. Izan ere, hark "Enplegu Digitalen Koalizioan" gaineratzen diren ekimenak hartzen ditu barne, eta gazteei gaitasun digital zehatzak eskaintzea du helburu, horiek informazioaren eta komunikazioaren teknologiekin (IKT) lotutako lanbideetara bideratuz eta sektore pribatuko enpleguarekin konektatuz.

Era berean, Itsas Eskualde Periferikoen Konferentziako (CRPM) kideei Abangoardiako Ekimena aurkeztu zaie eta, bereziki, Euskadik ko-lideratutako aurkako inguruneetako aplikazio energetikoetarako fabrikazio aurreratuari buruzko proiektua.

Euskadirentzako ekitaldi eta jardunaldi interesgarriak antolatu dira Erasmus+ eta Creative Europe programen esparruan. 2014an, Creative Europe Programan,



Europako finantzazioa jasotzeko guztira hautatu diren Europako 21 proiektuetatik bost euskal bazkideak dituzten lankidetzaproiektu kulturalak zirela azpimarratu behar da.

Bestalde, eta euskal administrazioei aholkularitza-zerbitzu egokia eskaintzeko estatuko diru-laguntzen araudiko berritasunei dagokienez eguneratuta mantentzea oso garrantzitsua dela kontuan hartuta, prestakuntza-ahaleginak etengabea izan behar du. Zentzu horretan, Europako Gaiak Zuzendaritza JASPERS plataformak 2014ko uztailaren 8an antolatutako "State Aid legal framework for the 2014-2020 programming period" jardunaldian izan zen, Bruselan.

Euskadin, 2014. urtean hainbat ekitaldi garrantzitsu antolatu dira gai europarrekin lotuta, betiere Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren laguntzarekin; besteak beste, Ipar Irlandako delegazio baten bisita antolatu da, SEUPB, the Special EU Programmes Body izenekoak lagunduta, Ipar Irlandan eta Irlandako mugako eskualdean bakea eta adiskidetzaren aldeko PEACE Programa kudeatzeaz arduratzen den Europako Batzordeko Unitatea. Bisita hori Euskadiko delegazio batek 2013an Belfastera egindako bisitaren jarraipena izan zen. Europako instituzioen aurrean bakearen eta elkarbizitzaren gaineko lankidetzaproiektuak partekatzea eta aurkeztea da ekimenaren helburua, zehazki, biktimei, hezkuntzari, gaztediari eta birgizarteratzeari buruzko lankidetzaproiektuak.

## **7. Eranskinean** ikus daitezke ekitaldi horietako batzuk.

Orain arte adierazitakoaz gain, Europako Erkidegoko instituzioak eta errealitatea ezagutzeko asmoz Bruselara hurbiltzen diren euskal ikasle eta gazteei ematen zaien laguntza gehitu behar zaio. Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren iritziz, garrantzi handia du jarduera horrek, datozen belaunaldiek Europarekiko izango duten interesa hazten lagunduko baitu.

2014. urtean zehar Bruselako Delegazioan izan dira Elcano Institutua eta Leizaola Fundazioa.

Bruselatik kanpo, 2014. urtean Gotenburgoko (Suedia) Itsasoko Autopisten aurkezpenean izan ginen. Europako Batzordearen politika berriak 9 korridore nagusitan oinarritutako garraio-sare zentral bat zehazten du. Horietako bat Korridore Atlantikoa da, euskal Euskadi Y-aren bitartez zeharkatzen duena, eta Itsasoko Autopistak programarekin osatzen da.

## **5. EBren inguruko sare, organizazio eta foroetan egindako lana**

Lobby lana eta sareko lana funtsezkoak dira Europar Batasunean dugun papera sendotzeko eta finkatzeko. Horregatik, Kanpo Ekintzako Idazkaritza Nagusitik, denbora asko ematen da eta ahalegin handia egiten da gure intereseko sare eta foro transbertsal nahiz sektorialekin kontaktatzeko, eta Euskadik erreferente gisa sare eta foro horietan egiten duen lana finkatzeko.

**8. Eranskinean** kontsulta daitezke Euskaditik 2014an zehar lan egin den sare nagusiak.

Sareko lanari dagokionez, Euskadik ERRIN sareko (Ikerketarako eta Berrikuntzarako Europako Eskualdeen Sarea) gobernu-organoetan parte hartzen du, fabrikazio aurreratuko lantaldearen buru da eta Sare horretako energia-lantaldeko batzorde zuzendarian parte hartzen du.

Era berean, Euskadik Itsas Eskualde Periferikoen Konferentziaren (CRPM) Lankidetzaren lantaldeko buru izateko gonbidapena jaso du, eta sare horretako Berrikuntza eta Itsas Energiei buruzko lantaldean parte hartzen du.

Fundatzaileetako bat den heinean, Euskadik "Abangoardiako Ekimenaren" gobernu-organoetan parte hartzen du eta, bereziki, Batzorde Zuzentzaileak astero egiten dituen bileretan.

Azkenik, Etxepare Institutua EUNIC sarea (institutu kulturalen Europako sarea) osatzen duen lehen institutu kultural ez estatala dela azpimarratu behar dugu.

## **6. Europako Erkidegoko zuzenbideari buruzko espedienteak jakinarazteko eta komunikatzeko jarduketak**

Aipatu dugun bezala, euskal instituzioen ohiko lanen artean sartzen da, eta naturala da, Europar Batasunean jarduketak egitea. Europako Erkidegoko zuzenbidea bete beharrak sortzen dituen obligazioen ingurukoak izaten dira batez ere. Alde horretatik, nabarmentzekoa da Europako Gaietarako Zuzendaritzak, Estatuko Administrazioarekin egiten diren komunikazioak Autonomia Erkidegoan koordinatzeko ardura duen organoa denez, Estatuko Laguntzen eta Erkidegoko Zuzenbideko Arau-hauste prozeduren inguruan Jaurlaritzako sailekin egindako aholkularitza-lana.

Arlo honetan nabarmentzen dira, alde batetik, Lehiaren eta Estatuaren Laguntzen Zuzenbidearekin zerikusia duten jarduketak. Alde horretatik, Euskal Autonomia Erkidegoan emandako laguntzen espedienteak Europako Batzordeari jakinarazten lan egiten da, hala agintzen dutenean, eta Batzordeak dossier jakin batzuei buruz informazioa emateko ezarritako betekizunak betetzen eta laguntzei buruzko datu estatistikoak bidaltzen.

Ez da Bruselako Lehiakortasun Zuzendaritza Nagusiarekin topaguneak antolatzeke beharrik izan estatuko laguntzei buruzko espedienteak ebazteko.

Europako Erkidegoko Zuzenbidearen Arau-hausteen Prozedura arloan, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusitik informazioa eta dokumentazioa bidaltzeko gure betebeharra betetzen jarraitzen dugu Euskal Autonomia Erkidegoa nahastuta dagoen prozedura guztietan.

2014. urtean, hainbat espediente itxi direla azpimarratu dezakegu, Uraren Esparru Zuzentarauaren transposizioaren zati bati buruzko 6918/14/ENVI Proiektu Pilotua edo 5193/13 Proiektu Pilotua, adibidez, Euskadiko jabetza pribatu batean metal pisutsuek kutsatutako ustezko hondakin-isuriei buruzkoa.

Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiaren jarrera azpimarratu behar da, hark lurralde historiko horretako oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga indargabetu eta aldatu baitu eta, horrela, Europako Batzordeak bere momentuan agindu zuen administrazio-espedientea itxi baita, Bizkaiak momentu horretara arte ezarrita zuen jabetzen transferentzien eta oinordetzen gaineko zergen araubide berezia diskriminatzailetzat jotzen zelako, hain zuzen.

## **7. Erkidegoko gaien komunikazioaren eta zabalkundearen inguruko jarduketak**

2014an zehar, euskal instituzioek Europan ere sustatzen dute gardentasunaren politika eta Administrazioa herritarrei hurbiltzea, instituzioetan egiten duten lana proiektatuz IREKIA bezalako atarien bidez, komunikabide desberdinak ere bertan integratuta.

2014. urtean, Europako Gaietarako Zuzendaritzak erkidegoko gaiak jakinarazi eta hedatzen lagundu du, Europar Batasunari buruzko jardunaldietan eta Eurobaskek (Mugimendu Europazalearen Euskal Kontseilua) antolatzen dituen udako ikastaroetan parte hartuz.

Era berean, eta Europa Euskadira gerturatzeko filosofian oinarrituz, Europako Informazioaren Euskal Sarearen (EIES) web-orria finkatu da, [www.revie.euskadi.net](http://www.revie.euskadi.net); hura Europako informazioaren sarbide eta erreferente bihurtu da Autonomia Erkidegoan.

Web-orri horren bidez, Europako gaurkotasuna, deialdiak, lehiaketak, bazkide-bilaketak eta agenda ezagutu daitezke kartan jarritako subskripzio eta alerta-sistema pertsonalizatuaren bitartez, baita mugikortasun eta enplegu europarrari buruzko kutxa informatikoak eta Delegazioak landutako txosten teknikoak ere.

2014an, web horrek 316 harpidedun izan ditu hamabost eguneko buletinera; gainera, 7.533 erabiltzaile sartu dira EIES web-orrira eta 40 txosten tekniko eseki dira web orrian.

## IV. 2014AN MUGAZ GAINDIKO LANKIDETZA ARLOAN EGINDAKO JARDUERAK

### IV.1 “Akitania/Euskadi Euroeskualdea” Lurralde Lankidetzako Europako Taldea (LLET)

"Akitania-Euskadi Euroeskualdea" Lurralde Lankidetzako Europako Taldea (LLET) honako hauetan oinarrituta sortu zen: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 5eko 1082/2006 (EE) Erregelamendua, benetan aplikatu behar diren neurriak hartzen dituen urtarrilaren 18ko 37/2008 Errege Dekretua, eta Euskadiko Autonomia Erkidegoaren eta Akitania Eskualdearen artean 2011ko abenduaren 12an sinatutako Hitzarmena.

Euroeskualdearen ekonomia, gizarte eta kultura garatzen lagunduko duten lankidetzajarduerak burutzea da LLETaren helburu orokorra. Orobat, euroeskualdea toki-, eskualde- eta nazio-istantzietan eta Europakoetan zein nazioartekoetan ordezkatzeko da beste helburuetako bat.

2014. urtean, Batzarra zela-eta, Akitaniako lehendakariak, Alain ROUSSET jaunak, Iñigo URKULLU lehendakari jaunari eskualdatu zion Euroeskualdearen Lehendakaritza, eta hark izango du 2016. urtera arte.

Euroeskualdeak urtero egiten duen jarduera garrantzitsuenen artean, mugaz haraindiko proiektuentzako **diru-laguntzen deialdia** dugu, horiek Bidasoaren bi aldeetako erakundeen arteko lankidetzak sustatzen baitute. 2014. urtean, diru-laguntza horiek Kulturaren eta Eleaniztasunaren esparruan oinarritzea adostu zen. Aurkeztu ziren 42 proiektuetatik 17 onartu ziren, eta horiei 300.000 euroko aurrekontua xedatu zitzaizen guztira.

Gainera, Euroeskualdeak zenbait erakunde gerturatu zitezela sustatu du eta hainbat akordio sinatu zitezela sustatu edo lagundu du.

Horrela, Akitania eta Euskadiko sail eskudunen artean sinatutako **osasun arloko elkar ulertzeko memoranduma** gailendu behar dugu. Haren helburu nagusia berrikuntzak elkarrekin garatzea da, gaixotasun kronikoen ondorioak eta kausak tratatu eta murrizteko, osasun onarekin zahartzeko eta autonomia mantentzeko.

Unibertsitate-esparruan, Akitaniako eta Euskadiko lehendakariak Bordeleko Unibertsitatearen eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko elkar ulertzeko memoranduma sinatu zuten; haren bitartez, «**Euroeskualdeko Bikaintasun Campus Europarra**» sortu zen.

Baina, zalantzarik gabe, 2014. urteko jardueraren helburu nagusia **Euroeskualdearen 2014-2020 aldirako Plan Estrategikoaren** onspena eta aurkezpena izan ziren, abenduan. Dokumentu garrantzitsu horrek, izenak berak adierazten duen moduan, Akitaniaren eta Euskadiren arteko 2020. urtera arteko mugaz bestaldeko lankidetzak markatuko du. Lurralde Lankidetzako Europako Taldeak etorkizunean izango duen garrantziagatik, lan horrek barne hartzen dituen ardatzak azpimarratuko ditugu:

- Euroeskualdeko herritartasuna.  
Hizkuntzen ezagutza- eta erabilera-maila hobetzeko lan egingo da, kultura ardatz gisa hartuta, eta bi lurraldeetako gazteek elkarrekin gehiago jardun dezaten.
- Enpresa arloko lehiakortasunaren, berrikuntzaren eta ezagutzaren ekonomia.  
Unibertsitate arteko lankidetzak, eta enpresa eta klusterren arteko I+G+b arloko lankidetzak sustatu nahi dira, eta eskualdeko enplegurako arto bat garatu nahi da.
- Lurralde jasangarria.  
Erreferentziatzko ingurumen-eremu horretan mugikortasun jasangarriaren kontzeptua sustatuz, eta Euroeskualdeko baliabide naturalei eta erakarpen turistikoari balioa emanez.
- Gobernantza irekia.  
Maila anitzeko gobernantza garatuz eta Euroeskualdearen irudi erakargarria sortuz.

## IV.2 Pirinioetako Lan Elkartea

Pirinioetako Lan Elkartea (PLE) 1983. urtean sortu zen eta honako kide hauek osatzen dute: Akitania, Midi-Pyrénées, Languedoc-Roussillon; Katalunia, Aragoi, Nafarroa, Euskadi eta Andorra Printzerria.

Urte askotan, nortasun juridikorik gabeko erakundea izan zen, baina 2005ean, Baionako Itunaren babespean, Partzuergo gisa eratu zen.

2014. urtean, PLE, Kudeaketa Agintaritzak gisa, funtsezkoa izan da Europako Batzordeari epe barruan aurkeztu beharreko lanak sustatzeko orduan eta, batez ere, 2014-2020 aldirako Espainia-Frantzia-Andorra Lurralde Lankidetzarako Programa Operatiboaren (POCTEFA) Zirriborroa aurkezteko orduan.

POCTEFA programak ia 190 milioi euro jasoko ditu FEDER Fondoaren aldetik eta, horrela, hurrengo deialdietan onartutako mugaz haraindiko proiektuei dagozkien gastuen % 65 finantzatu ahal izango da.

Europako Batzordeak 2015ean onartu du POCTEFA Programa.

## **V. ETORKIZUNERAKO PROPOSAMENAK**

### **A. Transbertsalki jarduteko proposamenak**

2015eko otsaileko osoko bilkuraren ostean, ESKOk 5 urterako agintaldi edo legegintzaldi berri bati ekin zion. ESKOk instituzioko kargu guztiak berritu zituen, lehendakari berria aukeratu zuen, bere programa politikoa onartu zuen eta lan-batzorde berriak sortu zituen, besteak beste. Gainera, Europako Batzordearen lan-programari buruzko bere jarrera islatzen zuen Ebazpen bat onartu zuen.

Era berean, bere lan-programa onartu du Europako Batzordearen legegintzaldiko programa oinarritzat hartuta, eta ekaineko saioan, agintaldi berri osorako lehentasun politikoak onartzea espero da. Eusko Jaurlaritzatik gertutik jarraitzen ditugu gai horiek.

ESKOn beraren iritziz, ESKOk erabakiak hartzeko prozesuan egingo duen ekarpenari dagokionez Europako instituzioek dituzten itxaropenek lurralde-esperientzia arloko eskakizunak dituzte oinarri. Horrenbestez, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusitik, gobernuko sailek jorratzen dituzten zuzenketen koordinatzaileak garen heinean, erne egotea eta gure esperientzia, jarduten jakitea eta lurralde-espezifikotasuna aurkezteko aukera hobeto aprobetxatzea erabaki dugu.

Subsidiarioratasun-eremuan, Eusko Jaurlaritzak erkidegoko araudian printzipio hori betetzen dela zaintzen jarraituko du zehaztutako mekanismoak erabiliz. Erkidegoko erakundeek legeak egiteko orduan printzipio horiek kontuan hartzen dituztela bermatzen jarraituko du, eta Europako arauak lurraldean duten inpaktua aztertzeraz xedaturiko jarduerak babestuko ditu.

Foroetako partaidetzari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak txostengile gisa jardun du, 2015. urte honetan, Lurralde Lankidetzako Europako Elkarteei buruzko Plataformaren urteko bileran; hura martxoaren 3an egin zen, Eskualdeetako Komitearen egoitzan. Era berean, urrian egingo diren Open Days edo ateak zabaltzeko egunetan parte hartzea aurreikusten da.

Gainera, EBko Ekonomia eta Finantza Kontseiluko lantaldeetan lan egiten jarraituko dugu, Ecofin, Eusko Jaurlaritzatik nahiz Foru Aldundietatik, eta ordezkariak autonomikoa gauzatzen jarraituko dugu hurrengo urteetarako esleituta ditugun Europako Batzordeko komite guztietan.

Martxoaren 17an eta 18an, Arku Atlantikoko Batzordearen Batzar Nagusia izan dugu Bilbon, hau da, Itsas Eskualde Periferikoen Konferentziaren (CRPM) sei lan-batzorde geografikoetako bat. Eusko Jaurlaritza eskualdeen interesak defendatzeko sare horren barnean dago hasiera-hasieratik. Oraingo honetan, Bilboko Aitorpena onartzearekin batera, Batzarrak mezu garbi batzuk helarazi zituen, honako hauek, esaterako: Europar Batasunak Itsas Estrategia Atlantikoaren aitorten ofiziala egin dezala eskatzea, "makroeskualeko estrategia" gisa (Baltikoan eta Danubion bezala), horrek ikusgaitasun politiko eta eragin handiagoa eskainiko bailioke erkidegoko instituzioetan; Juncker Planak Arku Atlantikoko Batzordetik aurkeztutako proiektu transnazionalak finantzatu ditzala eta itsas industrietarako estrategia europar bat martxan jar dadila eskatzea, arrantzatik ontzioletara edo itsas energietara, eta Atlantikoko eta Iparraldeko Itsasoko eta Mediterraneoko korridoreak hobetu daitezela eskatzea, ekialdetik mendebaldera doazen trenbide-lotuneei dagokienez batez ere; eta hainbat eskualdek EBk hondamendi naturaletarako helarazten dituen fondoak aktibazioa eskatu ahal izan dezatela eskatzea, gaur egun Estatuak bakarrik eska baitezakete.

Merkataritza eta Inbertsio Lankidetzaren Transatlantikoaren negoziazioen jarraipen berezia egingo da. Zentzu horretan, Akordioak inpaktu desberdina izango luke 28 estatu kideetan eta, gainera, modu desberdinean eragin dezake ekonomiaren sektoreetan. Horrenbestez, Akordioak kontrako iritziak izan ditu EBko estatu kide batzuetan, Alemanian eta Austrian batez ere, eta gero eta gehiago Frantzia, Holandan, Espainian eta Erresuma Batuan (tradizioz, oso atlantista).

Argi dago, mota honetako Akordioen onura potentzialen indize altua bi alderdiek araudiaren bikoiztasuna murrizteko duten gaitasunaren arabera da, sektore batzuetan batez ere (nekazaritzako elikagaien sektorean, automobilgintzan eta abarretan).

EBn Akordioa defendatzen dutenen ustez,

- Akordioak hazkunde ekonomikoa eta enplegua sortzen lagunduko du.
- *Win-win* egoera bat sortuko da eta horrek tarifak eta oztupoak murrizten lagunduko die bi alderdiei.
- Bi alderdien mundu mailako lehiakortasuna hobetu egingo da oztupoak murriztu eta jabetza intelektuala babesten bada.

Eta Akordioak zein onura izan ditzake Euskadin?

Euskadiren eta Estatu Batuen arteko merkataritza-harremanei dagokienez, azken 5 urteetan AEB izan da euskal esportazioen hirugarren norakoa, Frantziaren eta Alemaniaren ostean; gainera, inportazioen zortzigarren jatorria eta kanpoko euskal inbertsioen lehen norakoa izan da. 411 enpresak arrunki esportatzen dute Estatu Batuetara eta 61 euskal enpresa bertan ezarrita daude.

EBk eta AEBk akordio handi bat ixtea lortzen badute, hau da, muga-zergak eta horiekin lotutako oztupoak murriztea lortzen badute, gure ekonomiako sektore jakin batzuek abantaila garrantzitsuak lortuko lituzkete beren ekoizpen- eta esportazio-tasetan. Sektore horien artean, automobilgintza (merkataritza % 43,11 handituko litzateke), metala eta metaletik eratorritako produktuak (merkataritza % 12,07 handituko litzateke) ditugu, besteak beste.

Zentzu horretan, EA-NV, SV-ES eta Mistoa-UPyD taldeek Eusko Legebiltzarrean sinatutako zuzenketa transakzionala ekarri behar dugu gogora:

1. Europako Batzordeari Akordioaren negoziazio-prozesu osoan zehar dagokion gardentasuna bermatu dezala eskatzea.
2. Akordio horren inguruan abian diren negoziazioek industriaren eta Europako sektore ekonomiko guztien interesak eta lehiakortasuna defendatu behar dituztela gogoratzea, betiere kontsumitzaileen, horien datuen eta horien osasunaren eta segurtasunaren babes-maila altua bermatuz, eta gizarte, lan, zerga eta ingurumen arloetako dumping delakoa saihestuz, hau da, gizarte-ongizaterako eredu europarra deiturikoaren etorkizuneko jasangarritasuna babestuz.
3. Europako Parlamentuari Akordioaren berrespena baldintzatu dezala eskatzea, baita beste edozein trataturi dagokionez ere, betiere Europako kalitate-estandarrei eta lan-eskubideei dagokienez, Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) xedapenen esparruan, eta herritarrentzako zerbitzu publikoak eta sozialak babesteari dagokionez, baita interes publikoaren defentsarako arauketaren eskubide demokratikoa gorde dezala ere.

Gure jardueraren zati garrantzitsu bat Juncker Planaren ezarpena jarraitzea izango da. Izan ere, oso garrantzitsua da Euskadin egiten diren esparru horretako proiektu berritzaileak identifikatzea, horiek interes handiko finantziario-lerroen hartzekodun izan baitaitezke eta lankidetzara publiko-pribatuak sustatu baititzakete, betiere enplegua eta aberastasuna sortzeko eta hura gure lurraldean eta herritarrengan bihurtzeko formula gisa.

Lobby politiko-instituzional gisa betetzen dugun eginkizuna sustatzen jarraituko dugu beharrezkotzat jotzen dugun foro eta sare guztietan eta, batez ere, Euskadi munduan erreferentziazko herrialde gisa kokatzeko lan egiten jarraituko dugu.

Bestalde, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiak pertsona errefuxiatuei laguntzeko Erakunde Arteko Batzordea eta Sail Arteko Batzordea osatzen ditu; horiek irailean sortu ziren, Eusko Jaurlaritzaren, foru-aldundien, Eudelen eta hiru euskal hiriburuen pertsona horien harrerarekin lotutako lana koordinatzeko.

Lantalde horiek osatu diren Europako testuinguruan, krisi migratzaileari aurre egitea izan behar du Batasunaren lehentasun nagusiak. Urte hasieratik 500.000 pertsona inguru iritsi dira Europara. Gehienak Siriako gerra zibiletik, Libiako estatu islamikoak eragin duen izutik edo Eritreako diktaduratik ihes egin nahian iritsi dira.

Funtsezko asilo-eskubideari erantzuteko, 1951. urtean Genevako Konbentzioa onartu zen, hertsiki errespetatu behar den babes-erregimen globala. Batzordeak hamarkada bat baino gehiago darama asilorako sistema europar erkide bat sortzeko helburuarekin lan egiten; haren azken pieza legegilea 2015eko uztailan jarri zen indarrean.

Gaur egun, Europan errefuxiatuak jasotzeko moduari buruzko estatu kideen arteko estandar komunak daude horien duintasunarekin lotuta; era berean, asilo-eskaerak izapidetzeko prozedura erkide bat eta organo judizial independenteek norbait nazioarteko babesa jasotzeko prest dagoen ala ez zehazteko duten moduari buruzko irizpide bateratu bat daude. Baina ez dira estandar horiek errespetatzen.

Asilorako sistema europar erkidea ez da nahikoa. Krisiaren larritasuna dela-eta, erronkei modu konbinatuan eta globalean erantzun behar zaie eta, xede horrekin, maiatzean Migrazioaren Agenda Europarra onartu zen. Haren bitartez, itsas segurtasuna areagotu da, kontrabandisten eta giza trafikoaren bandak desegin dira,



eta Europar Batasuna Siriako krisia arintzeko funtsen emaile nagusia bihurtu da. Halere, estatu kideek ahalegin handiagoak egin behar dituzte.

Azken hilabeteetan, Europar Batasunak hainbat neurri hartu ditu esparru horretan. Hala, uztailaren 20an egindako Justizia eta Barne Arazoen Kontseiluan (JBA) hartutako erabaki bidez, Espainiak 2.749 pertsona hartzea erabaki zuen. Horien artean:

- 1.300 pertsona birkokatuko dira eta dagoeneko Italian eta Grezian daude; nahitaez hartu beharreko zenbatekoa da.
- 1.449 pertsona birkokatuko dira eta EBtik kanpo daude. Borondatez hartutako pertsona-kopurua da.

Irailaren 14ko Justizia eta Barne Arazoetako (JBA) Ministroen Kontseiluan, 32.256 pertsona birkokatze erabaki formala hartu zen; zenbateko hori Europar Batasunaren irailaren 15eko Egunkari Ofizialean argitaratu zen. Halere, ez zen 120.000 errefuxiatu gehiago birkokatze erabakiari buruzko adostasunik lortu.

Errekorrezko denboran, Europako Parlamentuak oniritzia eman dio Italiatik, Greziatik eta Hungariatik 120.000 errefuxiatu gehiago birkokatze erabaki-proposamenari. Irailaren 22an Bruselan bildutako Justizia eta Barne Arazoetako ministroek Italiatik eta Greziatik (Hungaria dagoeneko ez da sistemaren onuradun) datozen 120.000 errefuxiatu banatzea adostu dute. Estatuak borondatezko oinarri baten arabera onartzen dituzte kupoak. Espainiari 8.023 pertsona dagozkio.

Horrela, Espainiari 10.772 pertsona dagozkio momentuz, eta honela banatuko dira: 1.300 (nahitaez) + 1.449 (borondatez) + 8.023 (borondatez).

Oraindik 60.000 pertsona ingururen banaketa adostu behar da.

Estatuburuak eta gobernuburuak irailaren 23an bildu eta Libanora, Jordaniara, Turkiara eta beste herrialde batzuetara xedatu beharreko laguntzak adostu zituzten Siriako errefuxiatuen krisiari aurre egiteko. Horrez gain, Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Komisariorako eta Elikagaien Munduko Programarako gutxienez 1.000 milioi euroko finantziario gehigarria mobilizatzea erabaki zuten.

Aipatutako horiez gain, Batasunak hartutako beste hainbat proposamen daude esparru horretan: jatorrizko herrialde seguruaren zerrenda komun europarra, horrela azkarrago egingo baitira asilo-eskaerari dagozkion izapidetza, Siriatik datozen lehentasuna emateaz gain; asilo-eskaeren izapidetze-prozedurako aldaketak (Dublineko Sistema); etengabeko birkokatze-mekanismoa; asilo-politika europarren hurbilketa, errefuxiatu-egoera eman ostean; asilo-eskatzaileek prozedura izapidetzen den bitartean lan egin eta dirua irabazteko aukera izan dezatela ahalbidetzea; Europar Batasuneko kanpogarako mugak sendotzea, Frontex-ean inbertitzea; legezko migrazio-bideak irekitzea (Batzordea legezko migrazio-pakete bat prestatzen ari da 2016. urte hasierarako).

Edonola ere, Europako diplomaziak bere kanpo-politika sendotu eta jatorrian jardun behar du, Siriako eta Libiako gatazkari aurre eginez. Migrazio-krisiaren amaiera gertu ez egon arren, Europak inoiz baino batuago egon behar du eta eskuzabaltasunez erreakzionatu behar du.

Euskal instituzioak eta Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia behin baino gehiagotan elkartu dira azken asteetan zehar, eta honako neurri hauek hartu dituzte, besteak beste:

1. Harrera-protokoloa eta harreraren lehen fasean eskaini beharreko zerbitzuak batera zehazteko prozedura ezartzea. Zerbitzu horien artean honako hauek ditugu: harreraren hasierako kokapena; azterketa medikoa eta osasuna; oinarrizko mantentze- eta arropa-zerbitzuak; arreta psikologikoa; eskolatzepremiak.
2. Harrera-azpiegituren baliabideen mapa zehaztea.
3. Harrera emandako pertsonak eskualdeka eta udalerrika banatzeko proposamena osatzea foru-aldundiekin, udalerriekin eta EAEko hiru hiriburuekin batera, Europako eredia erreferentzia gisa hartuz.

Krisiari jatorrian erantzun beharrari arreta berezia emango zaio. Eusko Jaurlaritzak, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren bitartez, gobernuz kanpoko euskal erakundeek aurkeztutako Siriako gatazkarekin lotutako proposamenen babesa areagotuko du.

Horrez gain, ahalik eta eperik laburrenean, bi motatako diru-laguntzak onartzea erabaki dugu:

- Siriari larrialdiko laguntza humanitaria eskaintzeko aparteko neurriak onartu dira.
- GKEekin batera, giza laguntzako funts bat aktibatuko da, une honetan, Europatik igarotzen ari diren pertsonen bizi-baldintzak eskaintzeko.

Gainera, komite operatibo tekniko bat jarri da martxan, eta hark hurrengo asteetan beharrezkotzat jotzen diren ekintza guztiak koordinatuko ditu, gure lurraldera irits daitezkeen pertsona guztiei harrera zuzena eta segurua eskaintzen zaiela bermatzeko.

## B. Sektorialki jarduteko proposamenak

2014. urtean bezala, oraingoan ere honako galdera hauek egin behar dizkiogu gure buruari: Zein dira Europar Batasunean 2015erako eta hurrengo urteetarako politika publikoetan aurreikusitako joerak eta jarduera-lerroak? Eta horiek kontuan izanda, zein proposamen sektorialetan egingo du lan Euskadik?

Fiskalitateari dagokionez, EBk jarraituko du aztertzen politika fiskalak, kontzepzioaren nahiz aplikazioaren aldetik, nola lagun diezaiokeen ondoen Batasuneko ekonomiari, inbertsioa eta kontsumoa sustatuz. Era berean, deklaratu gabeko lanpostuen eta zerga-iruzurraren aurkako borroka indartuko du.

Zeharkako zergen lege-proposamen konkrituak lantzen jarraituko du, BEZari eta finantza-transakzioen zergei buruz, eta, zuzeneko zergen aldetik, sozietateen gaineko zergaren zerga-oinarri kontsolidatu komunaren, iruzurraren aurkako borrokaren eta lankidetzaren administratiboaren inguruan jardungo du.

Gainera, oso gertutik jarraituko dugu 2014-2020 aldirako Nekazaritza Politika Erkidearen erreforma, aldaketa esanguratsuak txertatu baititu diru-laguntzen banaketari dagokionez. Laguntza zuzenen eredu berriaren erronka nagusia ordainketa bakarretik (banakako eskubide historikoetan oinarritua) oinarritzko ordainketa-erregimenera emandako urratsari dagokio, hektarea-kopuruaren arabera; era berean, ordainketa berdea izan behar dugu kontuan –NPEren erreminta berri horren helburua laborantzan ingurumen-praktika egokiak sustatzea da, baita klimarako eta ingurumenerako onuragarriak diren gainazalak mantentzea ere–, zenbatekoak banatzeko eskualdekako eredu batean oinarritua. Labore iraunkor guztiak "berdeak" izango dira definizioz, dentsitate-mugarik gabe, larreak barne, eta horrek mesede egiten dio Euskadiri.

2015eko maiatzean, Europako Batzordeak Euskadiko Landa Garapenerako Plana onartu du, gure landa-ingurumena osatzen duten agenteei (nekazariak, basoginak, kooperatibak eta nekazarien industriak, udalak eta abar) laguntzeko 2014-2020 aldirako finantza-tresna, Bruselaren (FEADER fondoa) eta euskal instituzioek (Eusko Jaurilaritza eta Foru Aldundiak) egindako aurrekontu-ekarpenen artean finantzatua.

Zenbait saretan lan egiten jarraituko da, Euskadik nekazaritza-eremuetan dituen interesak sustatzeko. Adibide gisa, 2015. urtean hainbat ekitaldi aurreikusi dira ERIAFF sarearekin (European Regions for Innovation in Agriculture, Food and Forestry); martxoaren 25ean kalitateko elikadura-produktuak sustatzeko ekitaldi bat egin zen AREPO (Jatorri Produktuen Europako Eskualdeen Elkartea) sarearen bitartez, eta maiatzean, GEORik (genetikoki eraldatutako organismoak) gabeko eskualdeen sarearen urteko konferentzia egin da Berlinen.

EBren azpiegituren politika berria Europa barneko garraio-sare bat (TEN-T) da, Batasuneko 28 Estatuak zeharkatzen dituen hazkundera eta lehiakortasuna sustatzeko. Garraio-azpiegituren finantzaketa hirukoiztu egingo da 2014-2020 epealdian eta 26.000 milioi eurora iritsiko da.

Bide handi horietako bat korridore atlantikoa da, Lisboa eta Mannheim/Estrasburgo lotzen dituen, Iberiar penintsula eta Frantzia, eta jakina, Euskadi zeharkatzen dituen. 2015ean Korridore Atlantikoko Lan Plana onartuko da, eta "Europa Konektatu" Mekanismoko funtsen deialdiak ebatzen joango dira; izan ere, azpiegituren proiektu ugari aurkeztu dira *euskal* Y egiteko.

Estatu kideek langabezia-maila murriztu behar dute eta, horretarako, enplegua sortzeko eta enplegagarritasun-neurrietarako egiturazko erreformak eta babesak erabili behar dituzte. Batzordea inbertsioak ezagutzari eta kualifikazioei dagokienez izan behar duen forma zehazten ari da, betiere talde zaurgarrienei arreta berezia eskainiz, langabezian dauden gazteei eta iraupen luzeko langabetuei, esaterako. Era berean, oso garrantzitsua izango da lan-mugikortasuna erraztea, hutsik dauden lanpostu iraunkorren eta kualifikazio-desegokitasunaren kasuan batez ere. Gai horien jarraipena egiten jarraituko da eta, batez ere, Gazte Enpleguaren Ekimenarekin jarraituko da (Gazte Bermea).

2014-2020 aldirako Europako inbertsio-funtsei eta egitura-funtsei dagokienez, FEDER eta Europako Gizarte Funtzaren programa operatiboen jarraipena egiten jarraituko da.

2015erako Europako Energia Politikari dagokionez, Energiaren Europar Batasuna lortzea izango da lehentasuna, horrela, energia-horniduraren segurtasuna bermatu, hirugarren herrialdeetatik datozen inportazioekiko mendekotasuna murriztu, energiaren merkatu nazionalen integrazioarekin jarraitu, kontsumitzaileen partaidetza hobetu, eraginkortasun energetikoa indartu, saski energetikoaren deskarbonizazioa erraztu, eta esparru horretan ikerketa eta berrikuntza sustatzeko. Zentzu horretan, otsailaren 25ean Batzordeak Energiaren Batasun sendoa lortzeko bere estrategia eta ekintza-plana aurkeztu zituen, etorkizunera bideratutako klima-aldaketarako politikan oinarrituz.

Batasun energetikoa lortzeko helburu horretarako behar-beharrezkoa da sare-azpiegitura eskuragarri, eraginkor eta seguru bat lortzea, elkarrekin lotuta egongo dena. Interkonezioari buruzko bere Jakinarazpenean, Europako Batzordeak 2020. urterako interkonezio elektrikoaren % 10eko helburua lortzeko beharrezko neurriak zehaztu ditu, hori baita estatu kideen artean elektrizitatea igorri eta salerosteko gutxienekoa.

"Europa Konektatu" mekanismoa aplikatzeak aukera emango du EBko aurrekontua mobilizatzeko sektore pribatuaren inbertsioa sare-azpiegitura estrategikoetan katalizatzen.

Funtsezko beste ekimen eta lehentasun batzuk izango dira hidrokarbuo ez-konbentzionalen erauzketa segurua, efikazia energetikoa eta energia berriztagarrien erabilera.

2015eko abenduan Parisen egingo den Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioko Aldeen Biltzarrari dagokionez, esparru horretako lanen xedea mundu mailako akordio garden, dinamiko eta juridikoki lotesle bat lortzea izango da, eta alderdi guztiek asmo handiko konpromisoak bereganatu beharko dituzte. Batzordeak "Parisko Protokoloa" argitaratu du, "2020. urte osterako munduko klima-aldaketari aurre egiteko ekintza-plana"; bertan, 2020. urte osterako klima-aldaketarako Europako ekintza-esparruaren araudia garatzeko zenbait ideia aurkezten dira. Era berean, isurketa-eskubideen merkataritzari buruzko araubide europarra berrikusiko da. 2015eko Aste Berdean parte hartzea aurreikusten da, "Eskualdeak eta COP21<sup>2</sup>: klima-aldaketaren eta berrikuntzaren funtsezko aktoreak" izeneko mintegian, Eusko Jaurlaritzak eta Quebeceko eskualdeak antolatua.

Ikerketa eta berrikuntza arloan, HORIZON 2020 I+G (2014-2020) esparru-programa gailentzen jarraituko da. EB azken urteetan jasaten ari den lehiakortasun-problema gainditzeko xedearekin, lortu nahi da Egiturazko Funtzak eta ikerketa, garapen eta berrikuntzarako jarritako funtsak Europa 2020 Estrategiaren helburuekin koherenteak

---

<sup>2</sup> Conference of the Parties, Alderdien Konferentzia 21, Paris, 2015eko abendua

izateko moduan diseinatzea. Laburtuz, jakintzan eta balio erantsiaren sorkuntzan oinarrituta orientatu nahi da Europaren ekonomia, gizartearen erronkei eta premiei erantzuteko modu jasangarrian. Azken finean hazkunde zentzudun, jasangarri eta berritzailea, 70.200 milioi euroko diru-kopuruarekin.

Ikerketa eta Garapenerako Eskualde Europarren Sarean (ERRIN) parte hartzen jarraituko da, haren gobernu-organoetan nahiz fabrikazio aurreratuko lantaldearen buruzagitza gauzatuz. Ocean Energy Forum-ekiko lankidetzeta bultzatuko da, itsas energien garrantzia eta Euskadik arlo horretan duen erreferente posizioa indartzeko. Era berean, RIM+ (Regional Innovation Monitor) Plataformarekin lan egingo da.

Euskadik Itsas Eskualde Periferikoen Konferentziako itsas energien lantaldean parte hartzen jarraituko du.

Fabrikazio aurreratuari eta espezializazio adimendunari buruzko adituen sare batean parte hartuko da H2020 programako FoFam ("Industrial and regional valorisation of FoF Additive Manufacturing Projects") proiektuaren esparruan.

Fabrikazio Aurreratuan dugun jakintza eta esperientzia eramango dugu KICetara (Jakintza eta Ikerketa Komunitateetara). Euskal Herriak (Mondragon Korporazioa, Tecalia, IK4, Mondragon Unibertsitatea eta EHU) bultzatzen eta koordinatzen du balio erantsiko fabrikazioko jakintza eta berrikuntzaren etorkizuneko komunitatea lideratzeko hautagaitza. Proiektu estrategiko hau funtsezkoa da Euskal Autonomia Erkidegoa Europako jakintzaren eta ekintzaitzaren aliantzaren buruan kokatzeko esparru horretan. Deialdia 2016rako dago aurreikusita. Zalantzarik gabe, horrek enpresaren eta Unibertsitatearen arteko lotura sendotzen lagunduko du.

Hezkuntza-politikaren esparruan, 2015. urterako Europako agendan argi eta garbi nabarmentzen dira finantziario-lerroak barne hartzen dituzten Europar Batasunaren hezkuntza eta ikerketa esparruetako programak, eta programa horiei atxikitako finantziario-erremintak. Unibertsitatearen eta enpresaren arteko lotura, unibertsitateen sendotzea eta nazioartekotzea; unibertsitate arloko lurralde-lankidetzeta; balio erantsia eta espezializazio aurreratua lanbide-heziketan, eta sareko lana eta beste bazkide europarrekin mantendutako lankidetzeta ere agenda europarrean nabarmendu beharreko eremuak dira, eta gainera, Euskadik gailendutako lehentasunak dira. Euskadi esparru horretan kokatzeko helburuarekin, jarduketa guztien helburua izango da Erasmus+ Programari eta zentroentzako finantza-erremintari buruzko aholkularitzari jarraipena ematea, baita LH ikastetxe eta unibertsitateetako gai europarretarako funtsezko puntuekin kontaktua sendotzen jarraitzea ere, esparru horretan euskal partaidetza duten proiektu europarren kopurua areagotzen jarraitzea, eta sareetan ditugun kontaktuak eta kokapenak sendotzea, gure sektorea Europako abangoardian egon dadin.

Kulturari eta industria kultural eta sortzaileei dagokienez, 2015. urtean Creative Europe Programa eta haren deialdiak/finantziario-lerroak aplikatzen jarraituko dira; horrez gain, Creative Europe finantza-erreminta abian jarri eta aplikatuko da, baita lankidetzeta kulturalarekin lotutako ekintza zehatzak, entzunaldi berriak edo Kulturaren Hiriburu Europarren gisako ekimenak edo ibilbide kulturalak ere. Ildo horretan, gure industria kulturalak eta sortzaileak sendotzen jarraitzea izango da gure lehentasunetako bat, garapen ekonomikorako erreminta gisa, baita euskara agenda europarrean kokatzea, gure sektorearen nazioartekotzea sustatzea, politika horietan eskualde-dimentsioari balioa ematea edo Donostia 2016 babesten jarraitzea ere.

2015 lankidetzaren Europako urtea da. Urte horretan, lankidetzeta deszentralizatuaren eta lurralde-dimentsioaren Europako lan-esparrua berrikusiko da, baita Milurtekoaren

Helburuekin lotutako post2015 negoziazioak eta adierazleen testea ere; horrez gain, ekintzen eraginkortasuna bilatu eta lankidetzaren aurreratuagoaren ikuspegi berrien aldeko apustua egingo da. Lankidetzaren esparruan lankidetzaren estua mantenduko da Lankidetzaren Euskal Agentziarekin eta funtsezko euskal eragileekin (GKE koordinatzailea, Euskal Fundazioa eta abar), eta horrela, Euskadi Europako eta nazioarteko agendan lankidetzaren deszentralizatuari eta haren lurralde-dimentsioari dagokionez erreferente izateko lan egiten jarraituko dugu; era berean, haren Europako eta nazioarteko bazkideekin (Nazio Batuak, ART, UNDP Europa) eta Europako instituzioekin lan egiten jarraituko dugu.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari eta euskal udalerriari lankidetzaren deszentralizatuaren proiektu estrategikoetan laguntzen jarraituko diegu.

Gazteria eta kirol arloan, 2015. urtean zehar Erasmus+ (kirola + gazteria) Programaren garrantzia gailenduko da; Euskal Gazteak Lankidetzaren Programaren dimentsio europarreko proposamena gailenduko da eta hura EU Aid Volunteer Programan txertatzeko lan egingo da. Gainera, gazteria-eremuetan lan egiten duten euskal eragileei Europako eragileekin harremanak sendotzea ahalbidetuko dieten ekintzak sustatuko dira.

2015. urterako lehentasunezko esparruak itsas turismoa eta turismo atlantikoa, kalitatezko ziurtagiriak, ibilbide kulturalak eta turismoaren esparruko euskal dekretuen eta legediaren lerrokatzea izango dira, baita sektore turistikoari eta Eusko Jaurlaritzari Europako finantza-lerroei dagokienez aholkularitza eskaintzea ere.

Era berean, euskal instituzio guztiak inplikatu gara kultura indartzen eta gure hizkuntza, euskara, sustatzen.

Konferentziak eta topaketak antolatzen jarraituko dugu Bruselako Ordezkaritzan, gure praktika onen erakusleho onenean, Euskadiren intereseko bisitak eta kontaktuak sustatuz, eta Europako instituzioetan bilerak eginez era guztietako eragile instituzional, sozial nahiz ekonomikoekin. Europarekiko jakin-mina eta kezka duten euskal ikasleei eta gazteei harrera egiten jarraituko dugu, legegaldi honetan pertsonekin dugun konpromisoaren barruan. Gazteak Gobernu honen oinarritzko helburua dira.

Euskadin egiten den mugimendu eta kontzientziazio europarrari arreta berezia eskainiko diogu, Europako Mugimenduaren Euskal Kontseiluarekin (Eurobask) eta beste erakunde batzuekin lankidetzaren, Europako nazioek mundu global eta anitz honetan duten errealitatea eta nortasuna inoiz baino ageriago uzteko behararen isla gisa.

## 1. ERANSKINA.

### EUSKADIK ESKUALDEETAKO KOMITEAN IZANDAKO PARTE-HARTZE ESANGURATSUENAREN LABURPEN-TAULA

Ekitaldia	Ordezkarria	Jarduketa	Data
105. osoko bilkura	<b>Marian Elorza,</b> Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia	ALDE Talde Politikoaren bilera Espainiaren Ordezkaritzako bilera Osoko Bilkura	2014-01-30 2014-01-31
106. osoko bilkura	<b>Marian Elorza</b>	ALDE Talde Politikoaren bilera Espainiaren Ordezkaritzako bilera Osoko Bilkura	2014-04-02 2014-04-03
107. osoko bilkura	<b>Marian Elorza</b>	ALDE Talde Politikoaren bilera Espainiaren Ordezkaritzako bilera Osoko Bilkura	2014-06-25 2014-06-26
108. osoko bilkura	<b>Marian Elorza</b>	ALDE Talde Politikoaren bilera Espainiaren Ordezkaritzako bilera Osoko Bilkura	2014-10-07 2014-10-08
109. osoko bilkura	<b>Marian Elorza</b>	ALDE Talde Politikoaren bilera Espainiaren Ordezkaritzako bilera Osoko Bilkura	2014-12-03 2014-12-04
Eskualdeen eta Hirien Europako VI. Goi Bilera – Atenas	<b>Marian Elorza</b>	Hazkundearen eta enpleguaren Europako Estrategiari buruzko eztabaida, eskualdeen eta udalerrien ikuspegitik. (1.400 parte-hartzaile)	2014-03-07 2014-03-08
ESKOren 20. urteurrena	<b>Marian Elorza</b>	Partaidetza oroitzapenezko ekitaldietan eta ESKOren etorkizunari buruzko Ebazpenaren onespena ESKOren etorkizunari buruzko euskal jarrera	2014-06-25  2014-01-15
Europako maila anitzeko gobernantzari buruzko <b>eskutitza</b>	<b>Marian Elorza</b>	Eskutitzaren sinadura	2014-05-09
Kulturari eta Sormenari buruzko <b>konferentzia</b> : Europako eskualdeak eta hiriak bereizten dira	<b>Ibone Bengoetxea,</b> Bilboko Udaleko alkateordea	Bilboren kasua aurkeztea, tokiko garapenerako arrakasta-adibide gisa	2014-01-29 2014-01-30
“New Alliances for maritime industries growing Smart” gaiari buruzko <b>konferentzia</b>	<b>Ramón Martínez de Murguía,</b> Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako	Itsas industriaren espezializazioa eta hark hazkunde adimentsuarekin duen lotura	2015-10-07

	zuzendaria		
--	------------	--	--

## 2. ERANSKINA.

### EUSKO JAURLARITZAK ESQUALDEETAKO KOMITEAN AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Irizpenaren izena	Sailek landutako zuzenketak	Aurkeztutako zuzenketak	Onartutako zuzenketen kopurua
Basoen eta basogintzaren aldeko estrategia	10	10	9
2030eko klima- eta energia-politiketarako esparru europarra	6	6	4
Guztiontzako energia eskuragarria	9	9	6
Estatuko laguntzak energiaren alorrean	2	2	1
Handiagotze-estrategia eta 2013-2014 aldirako erronka nagusiak	1	1	1
Itsasoko jendeari aplikatu beharreko salbuespenak	1	1	0
EBko politiken etorkizuna justizia eta barne-arazoetako gaietan	7	6	6
ESKOren 20. urteurrena. EBko eskualde eta tokiko eragileen ahalduntzea	4	3	3
EBrako hiri-politika integratu baterantz	2	2	2
Hiri-mugikortasunari buruzko paketea	3	3	3



<b>Klima eta energia alorreko 2020-2030erako esparru estrategikoa</b>	2	2	2
<b>Europako ekonomiaren epe luzerako finantziakzioa</b>	1	0	0
<b>Kostako eta itsasoko turismoan hazkunde eta enplegu handiagoa lortzeko Europako estrategia</b>	11	11	10
<b>Auzotasun europarra</b>	2	1	1
<b>Europa herritarrekin birkonektatzea</b>	2	2	2
<b>Ekoizpen ekologikoaren paketea</b>	2	2	1
<b>Ikaskuntza ez formal eta informal baten bidez lortutako gaitasunen eta eskumenen aitorpena</b>	8	8	8
<b>Osasun mugikorra</b>	10	10	9
<b>Ekonomia-, gizarte- eta lurralde-koheretarako buruzko seigarren txostena</b>	1	1	1
<b>Benetako migrazio-politika europar baten bidez egiazko elkartasun bat sustatzeko ahaleginak</b>	1	1	1
<b>GUZTIRA</b>	<b>85</b>	<b>81</b>	<b>70</b>

### 3. ERANSKINA.

#### BESTE ESKUALDE BATZUEK LANDUTAKO ETA ESKUALDEETAKO KOMITEAN EUSKADIREKIN BATERA AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Honako hauek egindako zuzenketak	Aztertutako zuzenketak	Euskadik babestutako zuzenketak
<b>Andaluzia</b> <u>Gaiak:</u> Plastikozko poltsak 5; hiri-mugikortasunari buruzko paketea 1; VII. ingurumen-programa 4; bioaniztasunari buruzko 2020 estrategia 3; justizia eta barne-arazoetako politikak 3; nekazaritzako baliabide genetikoak 2.	18	14
<b>Aragoi</b> <u>Gaiak:</u> Klimari eta energiari buruzko 2030erako Liburu Berdea 4; basogintza 8; energia alorreko estatuko laguntzak 6; guztiontzako energia eskuragarria 3; aire garbiari buruzko paketea 2; 2020-2030 esparruari buruzko klimarako eta energiarako komunikazioa 4; mugikortasuna desabantaila geografikoak eta demografikoak dituzten eskualdeetan 4; politika industrialeko paketea 4; aldaketari eta berregituraketari aurrea hartzeko esparrua 3; ekonomia-, gizarte- eta lurralde-kohezioari buruzko VI. txostena 4.	42	31
<b>Asturias</b> <u>Gaiak:</u> Klimari eta energiari buruzko 2030erako Liburu Berdea 7; energia alorreko estatuko laguntzak 7; guztiontzako energia eskuragarria 6; hiri-politika integratu baterantz 6; 2020-2030 esparruari buruzko klimarako eta energiarako komunikazioa 5;	31	22
<b>Balear Uharteak</b> <u>Gaiak:</u> ESKOren barne-erregelamenduaren berrikuspena 1; kostako eta itsasoko turismorako estrategia 7;	8	8
<b>Kanariak</b> <u>Gaiak:</u> Etxerik gabeko pertsonentzako estrategia 1; lan-mugikortasuna eta EURES plataformaren ahalegina 2; justizia eta barne-arazoetako politikak 3; politika	8	8

industrialeko paketea 2;		
<b>Gaztela eta Leon</b> <u>Gaiak:</u> Klimari eta energiari buruzko 2030erako Liburu Berdea 4; energia alorreko estatuko laguntzak 4; guztiontzako energia eskuragarria 3; lan-mugikortasuna eta EURES plataformaren ahalegina 1; EBren legegintza-mandatu berria 1; 2020-2030 esparruari buruzko klimarako eta energiarako komunikazioa 5; ekonomia-, gizarte- eta lurralde-kohesioari buruzko VI. txostena 3.	21	17
<b>Gaztela-Mantxa</b> <u>Gaiak:</u> etxerik gabeko pertsonentzako estrategia 4; praktikaldietarako kalitatezko esparrua 1; nekazaritzako baliabide genetikoak 2;	7	5
<b>Katalunia</b> <u>Gaiak:</u> ESKOren barne-erregelamenduan berrikuspena 2; bioaniztasunari buruzko 2020 estrategia 1; aire garbiari buruzko paketea 5; ekoizpen ekologikoaren paketea 11;	19	15
<b>Extremadura</b> <u>Gaiak:</u> praktikaldietarako kalitatezko esparrua 5; energia alorreko estatuko laguntzak 4; guztiontzako energia eskuragarria 6; 2015. urterako EBren aurrekontua 2; justizia eta barne-arazoetako politikak 7; hiri-politika integratu baterantz 2; hiri-mugikortasunari buruzko paketea 4; lan-mugikortasuna eta EURES plataformaren ahalegina 2; VII. ingurumen-programa 2; bioaniztasunari buruzko 2020 estrategia 1; post 2015 Hyogo ekintza-esparrua 7; EBko legegintza-mandatu berria 2; aire garbiari buruzko paketea 2; klimari eta energiari buruzko 2030erako Liburu Berdea 2; mugikortasuna desabantaila geografikoak eta demografikoak dituzten eskualdeetan 4; kostako eta itsasoko turismorako estrategia 1; ikaskuntza ez formala eta informala 3; Interneteko gobernantza eta politika 1; ekoizpen ekologikorako paketea 1; ekonomia-, gizarte- eta lurralde-kohesioari buruzko VI. txostena 5.	63	44
<b>Galizia</b> <u>Gaiak:</u> Klimari eta energiari buruzko 2030erako Liburu Berdea 1; etxerik gabeko pertsonentzako estrategia 1; ekonomia-, gizarte- eta lurralde-kohesioari buruzko VI. txostena 2.	4	4
<b>Errioxa</b> <u>Gaiak:</u> ikaskuntza ez formala eta informala 1; Europa herritarrekin birkonektatzea 3;	4	0

<b>Madril</b> <u>Gaiak:</u> Interneteko gobernantza eta politika 2; Europako migrazio-politika 3; Europa herritarrekin birkonektatzea 1;	6	6
<b>Nafarroa</b> <u>Gaiak:</u> Mugikortasuna desabantaila geografikoak eta demografikoak dituzten eskualdeetan 5;	5	4
<b>Valentziako Erkidegoa</b> <u>Gaiak:</u> Hiri-politika integratu baterantz 3; hiri-mugikortasunari buruzko paketea 2; bioaniztasunari buruzko 2020 estrategia 3; EBko legegintzaldi-mandatu berria 1; auzotasun europarra 1.	10	10
<b>Danimarkako eskualdeak</b> <u>Gaiak:</u> ESKOren barne-erregelamenduaren berrikuspena 2	2	0
<b>Irlandako eskualdeak</b> <u>Gaiak:</u> ESKOren barne-erregelamenduaren berrikuspena 12;	12	0
<b>ALDE talde politikoa osatzen duten ESKUALDEAK</b> <u>Gaiak:</u> Klimari eta energiari buruzko 2030erako Liburu Berdea 6; Ekonomia eta Diru Batasunaren gizarte-dimentsioa 5; krisian dauden enpresentzako estatuko laguntzak 1; garraioa bide nabigagarrietatik 2; hiri-politika integratu baterantz 5; etxerik gabeko pertsonentzako estrategia 2; banku-sektorea EBn 6; hiri-mugikortasunari buruzko paketea 3; Adriatikoko eta Jonikoko eskualderako estrategia 2; politika industrialeko paketea 5; gastu publikoaren kalitatea EBn 2; Interneteko gobernantza eta politika 5;	44	22
<b>GUZTIRA</b>	<b>304</b>	<b>210</b>

#### **4. ERANSKINA. ENPLEGU, GIZARTE-POLITIKA, OSASUN ETA KONTSUMITZAILEEN KONTSEILURA ATXIKITAKO GIZARTE-GAIEI BURUZKO LANTALDEAREN BILERAK, 2014KO BIGARREN SEIHILEKOAN**

Uztaila: 1, 3, 8, 10 eta 24.  
Iraila: 3, 4, 9, 15, 18, 23 eta 30.  
Urria: 1, 3, 8, 13, 21, 22, 28 eta 31.  
Azaroa: 4, 6, 11, 17, 18, 20, 25 eta 27.  
Abendua: 16

##### Gizarte-gaiei buruzko lantaldean jorratutako gaiak:

- Italiako lehendakaritzak 2014ko bigarren seihiilekoko lehentasunak aurkeztu ditu.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren itsasoko jendeari buruzko Zuzentarau Proposamena, 2008/94/EE, 2009/38/EE, 2002/14/EE, 98/59/EE eta 2001/23/EE Zuzentaruak aldatzen dituena.
- Parlamentuaren eta Kontseiluaren Enplegu Zerbitzuen Europako Sareari, langileek mugikortasun-zerbitzuetara duten sarbideari eta lan-merkatuen integrazio handiagoari (EURES) buruzko Erregelamendu Proposamena.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Erabaki Proposamena, aitortu gabeko lanaren desinzentibazio eta prebentzio arloan lankidetzaren sendotzeko plataforma europar bat sortzeko buruzkoa.
- Behar gehien duten pertsonen laguntzeko Europako funtsaren (FEAD) inguruko informazioari eta reportingari buruzko eskuordetza emandako egintza.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Zuzentarau Proposamena, enpresa kotizatuetako administratzaileen arteko genero-oreka hobetzera xedaturik dagoena eta antzeko neurriak zehazten dituena.
- Erlijio edota sinesmenengatik, ezgaitasunagatik, adinagatik edota sexu-orientazioagatik tratatu-berdintasunaren printzipioa aplikatzearen inguruko Kontseiluaren Zuzentarau Proposamena.
- Kontseiluaren Zuzentarau Proposamena, Ibai Nabigazioaren Europar Batasunak (EBU), Itsasoko Patroiaren Europako Erakundeak (ESO) eta Garraioko Langileen Europako Federazioak (ETF) egindako Akordio europarra aplikatzen duena, barne-nabigazioari dagokionez kontuan hartu beharreko denbora-antolakuntzari buruzko zenbait alderdi jasotzen dituena.
- Batzordeak Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Lantaldeari egindako jakinarazpena, 2014-2020 aldirako Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Esparru Estrategikoan.
- Garapen jasangarriko helburuak ("Post-2015 agenda").
- Kontseiluaren Erabaki Proposamenak, horrela, estatu kideek, EBren alde, Hitzarmenaren 2014ko Protokoloa berresteko baimena izan dezaten, Nazioarteko Lan Erakundearen 1930eko nahitaezko lanari buruzkoa, gizarte-politikarekin lotutako gaiei eta, bestetik, arlo penaleko lankidetzaren judizialarekin lotutako gaiei dagokienez.
- Lehendakaritzak egindako ondorioen proposamena, estatu kideek eta EBko instituzioek Pekineko Ekintza Plataforma aplikatzearen azterketari buruzkoa: "Genero-berdintasuna EBn: 2015. urtearen ostean aurrera egiteko modua. Pekingo Ekintza plataforma 20 urtez aplikatu osteko balantzea".
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Zuzentarau Proposamena, Kontseiluaren 92/85/EEE Zuzentaruak aldatzen duena, haurdun dagoen, erditu berria den nahiz bularra ematen duen emakumearen laneko segurtasuna eta osasuna hobetzea sustatzeko neurrien aplikazioari buruzkoa.
- 2015eko Hazkunderari buruzko Urteko Azterketa Prospektiboa, enpleguari buruzko txosten bateratuaren proiektua eta alerta-mekanismoari buruzko txostena

#### **5. ERANSKINA.**

## **GAZTERIARI BURUZKO LANTALDEAK HEZKUNTZA, GAZTERIA, KULTURA ETA KIROLETAKO KONTSEILUAREKIN EGINDAKO BILERAK, 2014KO BIGARREN SEIHILEKOAN**

### Uztailak 9

- Lehendakaritzaren "*Gazteek eskubideak bereganatu ditzatela sustatzea, horien autonomia eta gizarte-bizitzako partaidetza hobetzeko helburuarekin*" lan-dokumentuaren aurkezpena eta haren inguruko ikuspuntuaren lehen trukea.
- Lehendakaritzaren Elkarrizketa egituratuaren IV. Zikloari buruzko informazioa; haren lehen faseak lehendakaritza italiarrari ematen dio hasiera, gazteen ahalduzuearekin lotutako lehentasunaren ildo beretik jarraituz.
- Europako Batzordeak aditu-taldearen egoerari buruzko informazioa helarazi du, gazteen lan-kalitateko sistemiei dagokienez, eta Wiki Gazteria erreminta aurkeztu du.

### Irailak 12

- Peter Matjasic Europako Gazteria Foroaren lehendakariak elkarrizketa-prozesu egituratuari buruzko informazioa helarazi eta bere balorazio onuragarria helarazi du, gazteek eskubideak bereganatzeari dagokionez prestatzen ari den ondorioen proiektuari dagokionez.
- Gazteek eskubideak bereganatu ditzatela sustatzeari buruzko ondorioen proiektua, horien autonomia eta partaidetza sustatzeko.
- Europako Kontseiluak egindako gazteen eskubideei buruzko lanaren aurkezpena.

### Urriak 31

- Gazteek eskubideak bereganatu ditzatela sustatzeko ondorioen proiektua, horien autonomia eta partaidetza sustatzeko.
- Lehendakaritzak urriaren 13tik 16ra Erroman egindako Gazteria Konferentziaren inguruko informazioa eman du.
- Europako Batzordearen Gazteria eta Kiroletako zuzendariak urriaren 9an eta 10ean Erroman egindako Europako Gazteria Topaguneari buruzko informazioa eman du. Bertan, EB2020 Estrategiari buruzko lan-saio bat egin zen.
- Europako Batzordearen 2015eko Gazteriaren Txosten europarrari buruzko ekarpenak.

### Azaroak 10

- Gazteek eskubideak bereganatzeari buruzko ondorio-proposamenaren berrikuspena, horiek gizarte zibilean autonomia eta partaidetza handiagoak lor ditzaten.

### Azaroak 19

- Gazteek eskubideak bereganatu ditzatela sustatzeko Kontseiluak egindako ondorioen proiektua, horiek gizarte zibilean autonomia eta partaidetza handiagoak lor ditzaten
- Ministroen Kontseiluaren abenduaren 12ko Gazteria arloko eztabaida politikoa prestatzea.

## **6. ERANSKINA.**

### **EUSKAL HERRIAK PARTE HARTU DUEN EUOPAR BATASUNeko EKONOMIA-ETA FINANTZA-KONTSEILUKO (ECOFIN) LANTALDEEN BILERAK**

- Zuzeneko zergak (sozietateen gaineko zergaren zerga-oinarri kontsolidatu komunari buruzko lana, informazio-trukatze automatikoa): 12 bilera Bruselako Ordezkaritzak eta bilera 1 Bizkaiko Foru Aldundiak
- Jokabide Kodea: 2 bilera Bruselako Ordezkaritzak eta 6 bilera Bizkaiko Foru Aldundiak
- Zeharkako zergak (FTZ, Finantza Transakzioen gaineko Zerga): 3 bilera Bruselako Ordezkaritzak
- Zeharkako zergak (BEZ, Balio Erantsiaren gaineko Zerga): 8 bilera Bruselako Ordezkaritzak
- Zeharkako zergak (Energiaren gaineko Zergak): 2 bilera Bruselako Ordezkaritzak

## 7. ERANSKINA.

### POLITIKA PUBLIKOEN HAINBAT ARLOTAKO EKITALDIAK ETA BILERAK

- Bideokonferentzia IHOBerekin, Euskadiko Ingurumen Programa prestatzeko bere kontsulta-prozesuaren barnean.
- Bideokonferentzia Confebaskekin
- Bideokonferentzia Orkestrako Energia Katedrarekin (finantziazio-aukerak, posizionamendua).
- Bilera informazioaren eta komunikazioaren teknologien euskal klusterreko (GAIA) ordezkari batekin.
- Bilera IDOMekin (H2020 aukerak).
- Bilera Bizkaia Talentekin (finantziazioa, proiektuak).
- Bilera Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzako Pertsonen Autonomia Sustatzeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko zuzendariarekin, gizarte-politikako gaiak jorratzeko helburuarekin.
- Bilera Espainiako Trenbide Erakundeko (MAFEX) ordezkariarekin.
- Aldizkako bilerak Tecnaliak eta Mondragon Korporazioak Bruselan dituzten ordezkariarekin
- Bilera DG Regio Zuzendaritza Nagusiarekin, 70. artikulua argitzeko.
- Bilera Stanislav Rangelov eta Ines Legler jaun-andreekin, EBko gazte-enpleguari buruzko azken datu, ekimen eta finantziarioari buruz hitz egiteko. Horiek E.4 Unitateari dagozkio – Europako Gizarte Funtsaren (EGF) Espainia eta Portugalentzako kudeaketa, Europako Batzordearen Enplegu, Gizarte-gai, Gaitasun eta Lan Mugikortasunari buruzko Zuzendaritza Nagusia.
- Bilera Ignacio García Bercero jauarekin, hau da, Europar Batasunaren eta Estatu Batuen arteko Merkataritzari eta Inbertsioari buruzko Akordio Transatlantikoaren negoziatzaile nagusiarekin.
- Bilera Suediako Orebro eskualdeko ordezkariarekin, Espezializazio Adimendunerako Estrategiaren inguruan; bilera Veneto eskualdeko ordezkariarekin, zerga-gaiei buruzko informazioa trukatzeko
- Bilera “Offshoreenergy Denmark” Bruselako bulegoko zuzendariarekin, offshore energiaren esparruko euskal potentzialtasunak aurkezteko eta eskualdeen arteko lankidetzak ahalbidetzeko.
- Bilera Energiaren Europako Asteko (EUSEW 2014) sariak emateaz arduratzen den erakundearekin, sarietarako hautagaitzak prestatzeko (EVE) helburuarekin.
- Europako Batzordearen Delegazioak euskal kazetariarekin Madrilan antolatutako bilera, Bruselako eskualde-bulego batean egiten den lana jakitera emateko.
- Periferiako Itsas Eskualdeen Konferentziaren (CRPM) Kohesiorako Lantaldearen bilerak.
- Eusko Jaurlaritzak koordinatzen duen Arku Atlantikoaren Batzordeko garraio-lantaldearen bilera, Bruselako delegazioan.
- Europako inbertsio-funtsetan eta egitura-funtsetan dauden finantza-erremintei buruzko hitzaldia; EBko gizarte-berrikuntzari buruzko hitzaldia eta Pobreziaren eta Gizarte Bazterkeriaren Aurka Borrokatzeko Europako Plataformaren Laugarren Konbentzioa.
- Bilera Novia Salcedo Fundazioarekin, Gazte Enpleguaren Hamarkadaren Aitorpenerako Nazioarteko Kanpaina.
- Urtarrilaren 16an, Donostian: Erasmus programari buruzko saio informatzailea.
- Otsailaren 5ean, Bilbon: Creative Europe programari buruzko saio informatzailea, Bilbon.
- Irailaren 10ean, Bruselan: Etxepare Institutuko zuzendariak EUNIC (mundu mailako institutu kulturalen sarea) sare globalaren zuzendaritza-bileran parte hartu du, Etxepare eta EUNIC kideen artean sinergiak sustatzeko.



- Irailak 12: Ikaskuntzaren Europako Aliantzaren bilera, Europako Batzordea.
- Azaroak 11: Euskadiren Europar Batasunerako ordezkariaren esku-hartzea, CRPMko lankidetzalantaldearen izenean, CRPMren tarteko Batzordearen konferentzian, eta bazkide europarrak.
- Azaroak 15 eta 16: Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) partaidetza Vietnameko hiriburuan, Hanoi, antolatutako *'European Higher Education Fairs'* hitzaldian. Europako Batzordearen ekimena. Europar Batasunak *"European Higher Education Fairs"* proiektuaren esparruan antolatutako bost unibertsitate-ferietako bat izango da, Asiako zenbait herrialdetako ikasleak erakartzeko helburuarekin.
- Azaroaren 19tik 20ra, Bordelen: Euskampus unibertsitate arteko sinposioa, Jordi Curell Europako Batzordeko Unibertsitate eta Nazioartekotzeko zuzendariaren partaidetzarekin.
- Azaroaren 27an, Donostian: kirol arloko finantziario-lerro eta politika europarrei buruzko saio informatzailea.
- Abenduak 9: Lankidetzalantaltzatuari eta itun berriei buruzko konferentzia, Bruselan.
- Abenduaren 18an, Gasteizen: saio informatzailea Euskadiko GKEen koordinatzailearekin, Europar Batasunaren lankidetzalantaltzatu arloko ekimenei eta programei buruzkoa.

## 8. ERANSKINA.

### 2014AN ZEHAR EUSKADITIK LAN EGIN DEN SARE NAGUSIAK

- “Vanguard Initiative”
- ERIAFF (European Regions for Innovation in Agriculture, Food and Forestry) sarea, nekazaritzan, elikaduran eta basogintzan berritzaileak diren Europako eskualdeak elkartzen dituena, eta EUROMONTANA sarea, Europako mendialdeetako elkarteak.
- REGLEG (Legegintzako Eskumena duten Eskualdeen sarea), gaur egun Friuli-Venezia-Giulia Bulegoa lehendakari duena.
- CORAL (Community of Regions for Assisted Living) sarea.
- NPLD (Network to Promote Linguistic Diversity) sare europarra.
- ERRIN (European Regions Research and Innovation Network) sare europarra.
- EARLALL (European Association of Regional and Local Authorities for Lifelong Learning) sare europarra.
- NECSTOUR (Network of European Regions for a Sustainable and Competitive Tourism) sare europarra.
- ENCORE (Environmental Conference of the Regions of Europe) sarea. Eusko Jaurkitza sarea horren Zuzendaritza Komitean dago.
- Periferiako Itsas Eskualdeen Konferentziaren (CRPM) baitako Arku Atlantikoko Batzordeko Garraioaren eta Itsas Energiaren lantaldeak.
- Lankidetzaren taldea, Periferiako Itsas Eskualdeen Konferentziaren (CRPM) esparruan.
- Jatorrizko produktuen Europako eskualdeen elkargoa (AREPO).
- Europako EUNIC sarea, Europar Batasuneko Kulturaren Institutu nazionalena
- Ikaskuntzarako Europako Aliantza